

TOKIKOM

2015eko uztaila | 150. zenbakia

ailkor!

ierriko aldizkaria

HAKI-BAI ELKARTEN

HAKI-BAI

50. urteurrena

Zorionak!

LAGATZU EGUNA LARRABETZUKO JAIAK LEZAMAKO JAIAK DERIO EKE



Izan zaitez protagonista



egizu Txorierri EUSKALDUNA!

Lagundu, bizi, beldurra galdu, berba egin, goxatu, BERBALAGUNA!

IZENA EMATEKO:

Telf: **635.75.35.95** eposta: **txorierri.berbalaguna@gmail.com**

AEK: 94.454.3967 Udal euskaltegia: 94.454.0062 Mankomunitatea: 94.454.0350

Laguntzaileak:



Antolatzailea:



TXORIERRI
BERBALAGUNA

Babesleak:





Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Imanol Álvarez, Jon Goikouria Larrabeiti, Miren Zorroza, Mari Carmen Noya, Idoia de Andrés, Roberto Gómez "Txiki", IZAE argazki taldea, Gaizka Peñafiel, Xabier Díaz, Garbiñe Larrauri, Itxaso Zarate, Jose Angel Menta, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota eritxien erantzukizunik.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



12 Lagatzu Eguna-Euskal Jaia



22 Larrabetzuko jaiak



26 Lezamako jaiak

- 4 Eritxiak**
- 5 Laburrak eta albisteak**
- 10 Publiurreportajea... Butroi upategia**
- 11 Irudietan... Jone Goiri, pilotaria**
- 12 Lagatzu Eguna-Euskal Jaia**
- 14 Gaztea eta... Maialen eta Garazi**
- 16 Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea**
- 18 Hori Bai Gaztetxearen 50. urteurrena**
- 22 Larrabetzuko jaiak**
- 26 Lezamako jaiak**
- 30 Elkartek... Derio EKE**
- 32 Txorierriko Antzerki Eskola**
- 34 Teknologia... Zaborra burutik gora**
- 35 Aikorrizketa... Atxaga, Uzkudun eta Oihartzabal**
- 36 Sukaldaritza**
- 37 Denborapasa**
- 38 Agenda**





IMANOL ÁLVAREZ
(Filosofia irakaslea)

Ez omen dago *yang* gabeko *ying-ik* eta ditxosozko krisiak ezer ona ekarri badu, hori demokrazia parte-hartzaileago baten bila dabilen alderdien hedapena izan da. Batzuk, berriak; beste batzuk, indarberriak. Baina guztiak, itxuraz behintzat, politika herri-
tik eta herriarentzat egiteko asmo onarekin.

Auzi orotan sustraletara garamatzen gizarte-joera honen zurrunbiloan, badi-rudi demokrazia parte-hartzaileago bat

Demogrezia

berreskuratzeko ahalegina egiteko prest gaudela. Europari, bere alabari, jainkosa baten izena jarri zion Greziak erakutsi du bidea. Baina, aldi berean, agerian utzi ditu arriskuak. XXI. mendeko konplexutasuna *polis* zaharren buruzagiek imajinatu baino haratago heldu da.

Erabakitze eskubidea, demokrazia parte-hartzaileago bat, beharrezko aurrerapausoa izan behar da edozertan eta edonon. Baina erabakitze gaitasunarekin batera baldin ez badator, ez du etorkizun hobea marrazten. Erabakitze askatasun hutsak ez gaitu aske egiten, ez behintzat, gaien gaineko ezagutza eta gure kabuz pentsatzeko gaitasunaren eskutik ez badoa. Paradoxikoa izanik, horiek faltatzean inoiz baino esklaboago bilaka gaitezke, askea dela uste duen esklabo hain zuzen ere.

Baina zer da jakinduria? Eta zertan datza gure kabuz pentsatzea? Ero-soagoa izango litzateke niretzat, artiku-

luaren luzerak gehiagorako emango ez balu...

Lehena, erabaki behar ditugun gaien gaineko ahalik eta informazio zabalena izateari lotuko nioke: ezagutza historikoa, ekonomikoa, kulturala... alegia. Bigarrena, ordea, eta informazioaren gaiari hertsiki lotuta beti ere, jasotzen ditugun mezuen artean, sinesgarritasuna merezi dutenak eta onura dakartenak aukeratzeko gaitasunean datza. Baina noski, prozesua ez da hemen amaitzen eta aukeratutako bideak erronka berriak ekarriko ditu, informazio eta pentsamendu autonomo gehiagoren beharra eskatuko duten bidegurutzeak. Horregatik ari naiz oinez ikasteaz hain zuzen ere.

Amaitzeko, ezin dugu ahaztu indibiduoak kolektibitatean pentsatu behar duela, kolektiboak indibidualtasuna errespetatzen duen bezainbeste. Bietako baten faltak kondenatu egiten gaituela erakutsi digu Historiak jada. Doktrinamendua izan ohi dugu etxean etsai. Zaila eta luzea dirudi, baina pausoka, egiteko moduko bidea da.

Zamudio, *chapeau*!

Ikustekoa da hain herri txikierrean zelangoa gauza handiak egin leikezan! Joan dan bagilaren 27an jentetza batuan Zamudion, Lagatzu Euskara Alkarteak urtero antolatzen dauan "Lagatzu Eguna-Euskal Jaia" ospatzeko. Aurtengoan errekorrak hautsi dituelakoan nago; izan be, 600dik gora herritarrek hartu eben parte!

Adin eta izaera ezberdinetako herritarrek alkatzeaz ganera, aurtengoan erronka itzelari egin deustie aurre Lagatzuko lagunek, *lipdubaren* grabaketari. Halango ekintza batek eskatzen dauana ez da aha-



OIHANA ASTOBIETA
(Irakaslea)

legin makala gero! Eta herritarrek ezin hobeto erantzun dabe, bakotzak bere ale txua ipiniaz. Eta bai erronka ondo bete be! Berrogeta bost alkarte eta kolektibo batu ziran! Biba zuek!

Boluntarioak batzea eta jenteak parte hartzea hainbeste kostaten dan sasoian, Zamudion lortu dana ITZELA izan da. Zelan izan dan hori posible? Azken urteotan herrian egon diran akulariei esker. Behar handia egin da eta hori igarri egiten da luzera begira. Hortxe daukazue, ereindako haziak emon dau bere frutua. Halantxe segidu! la hurrengoan zegaz harritzen gaituzuen! Gora herria! Zamudio, *chapeau*!

CONSTRUCCIONES VALDUEZA
josevaldueva@gmail.com 609 97 15 14

ERABERRITZEAK
IGELTSEROTZA, ORO HAR
Fatxada termikoak eta akustikoak

BIZKARGI
TABERNA ETA JANARIA

Urkiola, 6 DERIO 944541655

ASTIKENEMOTOR
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Euskaraz eroso egiteko tailerra antolatu dute Derion



Tximintx Derioko euskara elkarteak TELP tailerra antolatu du irailerako. Euskaraz egiteak deserosotasuna eragin dezake hainbat egoeratan, eta tailer horretan baliabideak eskainiko dira euskaraz eroso sentitzeko eta hizkuntza gatazkei aurre egiteko.

Tailerra EMUN aholkularitza taldeak zuzenduko du eta Larrabari baserrian emango da. Saio bi egingo dira: bata, irailaren 19an; eta bestea, irailaren 26an. Biak 9:00etatik 14:00ak artekoak izango dira. Leku mugatua dago eta beharrezkoa da aldeztu aurretik izena ematea. Horretarako, 688 845 186 telefono zenbakira deitu be-

har da, edo tximintx@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidali. Ikastaroak 10 euro balio du Tximintx euskara elkartearen bazkideentzat; eta 20 euro, gainerakoentzat.

"Ikastaroa euskara gehiago erabili nahi duten euskaldunei dago zuzenduta", esan digute euskara elkartetik. "Askotan, euskaldunok ez gara eroso sentitzen, eta tailerrean eguneroko egoerak aztertuko ditugu: medikuarenean, batzar batean, igogailuan... Ikastaroa erabat praktikoa eta dinamikoa izango da, eta hitzunei tresnak emango dizkiegu eroso sentitzeko".

Dantza ikastaroa, Hiru Bat taldeak antolatua

Hiru Bat Zamudioko dantza taldeak erromeria bat antolatu du urriaren 4rako, Bertoko soinu tresnen elkartearekin batera. Erromeria horretan, taldeko dantzariak ez ezik gainerako herritarrek ere parte hartzea nahi dute. Horretarako, Aiko taldera jo dute eta ikastaro bat prestatu dute, parte-hartzaile guztiek ikasi ahal izan ditzaten erromerian dantzatzeko diren dantzak. Ikastaroa irailaren 26an, zapatuan, egingo da Kultura-etxeko patioan, arrastiko 6etan. Ikastaroa egiteko ez da aurretiaz eman behar izena. Kultura-etxeko patioan, beraz, nahi duen guztia ager daiteke, dantzak ikasteko.

Kartel lehiaketa

Zamudioko Udalak Kartelen XIV. Lehiaketa antolatu du, San Martin jaiak iragartzeko. Oinarriak Udaletxean eta zamudiokoudala.net webgunean daude eskuragarri. Lanak irailaren 25era arte aurkeztu daitezke, eta irabazleak 300 euroko txartel bat jasoko du sarritzat, sistema honi atxikita dauden Zamudioko dendetan gastatzeko. Egokia iritziz gero, epaimahaia sari berezi bat ere eman ahal izango du.

Epaimahaia urriaren 2an, 13:00etan, eta Udaletxeko kultura bulegoetan, jakinaraziko du bere iritzia. Lanak azaroaren 6tik 20ra arte ipiniko dira ikusgai Zamudiotarren.

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzua
Bertoko produktuak



Talleri, 5
48170 Zamudio
94 481 05 85

HARATEGIA
ALBERTO



Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

ama
taberna



Leizaola plaza, 7 - behe (ZAMUDIO)
94 655 93 69

AmAr
ileapaindegia



Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behe
Zamudio
94 4520419

Erromes Eguna (Larrakoetxe)

Abuztuak 14, barikua

- Puzgarriak, arrasti osoan zehar.
- 19:00: Tor magoa.
- 20:00: Lore eskaintza.
- 20:15: Saiheski jana.
- 20:30: Xaibor.
- 00:00: Begoñako basilikarantz irte-
tea.

San Bartolome (Zamudio)

Abuztuak 23, domeka

- 17:00: Bolandera nagusia.
- Mus Txapelketa.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.
- 21:00: Erromeria, Dj Paco Sanchez-
ekin.

Abuztuak 24, astelehena.

San Bartolome Eguna

- 12:30: Meza, ermitan.
- Puzgarriak.
- Paella Txapelketa.
- Kopaua, auzoko nagusientzat.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 18:00: Puzgarriak.
- 19:30: Idi probak.
- 21:00: Sardina jana.
- Erromeria, Dj Paco Sanchezekin.

Abuztuak 25, martitzena

- 12:30: Meza, ermitan.
- 13:00: Puzgarriak.
- Sokatira: emakumeak vs. gizonak.
- 14:00: Marmitakoa aurkeztea.
- 19:00: Zaldi probak.
- 20:00: Patata tortilla Txapelketa.
- Puzgarriak.
- 21:00: Sariak banatzea.
- 21:30: Erromeria, Dj Paco Sanchez-
ekin.

Jaiak auzoetan



Santimami (Derio-Zamudio)

Abuztuak 16, domeka

- 12:30: Jaien hasiera eta txupin nagusia.
- 14:00: Sukalki Txapelketa. Kazolak aur-
keztea.
- 16:30: XIX. Mus Txapelketa.
- 18:00: Gorriti.
- 20:00: Tortilla Txapelketa.
- 21:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Erromeria, Lotxo taldearekin.

Abuztuak 17, astelehena

- Puzgarriak, egun osoan zehar.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Trikitilariak.
- 14:30: Herri bazkaria.
- 16:30: Apar eta ur jaia.
- 19:30: Umeentzako pailazoak.
- 21:00: Txitxi-burruntzia.
- 22:00: Erromeria, Arizgoiti taldearekin.
- 24:00: Sorgina erretzea eta txokolatada.

Abuztuak 18, martitzena

- 11:30: Puzgarriak.
- 12:00: Meza.
- 13:00: Kopaua, auzoko nagusientzat.
- Jaien amaiera eta agurra.

Sandoni (Zamudio)

Irailak 2, eguaztena.

Sandoni Eguna

- 11:30: Txupinazoa.
- 12:00: Meza, ermitan. Ostein, auzoko
nagusientzako omenaldia.

Irailak 5, zapatua

- Umeentzako puzgarriak eta jokoak,
egun osoan zehar.
- 12:00: Meza ermitan, auzoko defuntuen
oroimenez.
- Paella Txapelketa.
- Dantzen agerraldia, Hiru Bat dantza tal-
dearen eskutik.
- 14:00: Paellak aurkeztea.
- 16:30: Mus Txapelketa.
- Paella eta mus txapelketako sariak ba-
natzea.
- 20:30: Txitxi-burruntzia.
- 21:00: Dantzaldia, Joxe Mendizabalekin.

Irailak 6, domeka

- 12:30: Meza, ermitan.
- Euskal kantak.
- 20:00: Idi probak.
- Txitxi-burruntzia eta musika.

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

ERREKA
JAT **ONDO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

Santa Kurtze (Sondika)

Irailak 11, barikua

–18:00: Dj Iñigo.

–24:00: Honat taldea + Dj Iñigo.

Irailak 12, zapatua

–10:00-12:00: Marmitako Txapelketan izena ematea.

–11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearekin.

–11:30: Kalejira, Triki Xabierrekin.

–14:00: Marmitakoa aurkeztea.

–17:00: Futbol Txapelketa Triangularrak: Apurtuarte + Loiu + Sondika.

–20:00: Dantza Plaza, Oskizola taldearen eskutik.

–23:30: Gose + La sra. Tomasa + Dj Oihan Vega.

Irailak 13, domeka

–11:00: Kalejira, Ipar Elaiak txistu taldearekin.

–11:00-13:15: Marrazketa eta Pintura Lehiaketa, umeentzat.

–11:00-14:00: Haurrentzako parkea.

–18:00: Dantzen agerraldia, Gorantzailleak dantza taldearen eskutik.

Irailak 14, astelehena

–12:30: Meza, Santa Kurtzeko baselizan.

–Ohorezko aurrekua, Gorantzailleak dantza taldearen eskutik.

–17:00-20:00: Haurrentzako parkea.



Flash mob bat grabatuko dute Altzora Egunean

Irailaren 19an, zapatuan, Altzora Euskararen Elkartearen Eguna ospatuko dute Sondikan. Goizeko 11:15ean, ume eta gurasoei zuzendutako jolasak egongo dira Ikurrinaren Plazan. Ostean, goizeko 12:30ean eta leku berean, Euskaraz bizi nahi dut abestiaren *flash mob*-a grabatuko dute. Herriko elkarte guztiek hartuko dute parte ekitaldian, eta aurretiaz entseguak egingo dira, guztiek dantzaren pausoak ondo ikasteko. Entseguak irailaren 9an eta 16an egingo dira arrastiko 7etan Goiri Erdikoa plazan.

Bestalde, dantza poteoa egingo da arrastiko ordu batean. Ikurrinaren plaza-
tik irtengo da –euria izanez gero, karpatik– eta talde hauek girotuko dute ibilbidea: Ipar-Elaiak txistu taldea, Txuma Ola-

güe abesbatza eta Gorantzailleak dantza taldea. Herri bazkaria 15:00etarako antolatuko dute eta txartelak erosteko azken eguna irailaren 15a izango da. Txartelak leku hauetan ipiniko dituzte salgai: Guraso elkartearen egoitzan, Egarrri tabernan, Batzokian eta txosnan. Era berean, 635 75 35 95 telefono zenbakira deitzeko aukera dago. Bazkalondoa Taberna Ibiltariak eta bertan batzen diren elkar-
teek girotuko dute.

“Helburua euskaraz ondo pasatzea eta euskara kalera ateratzea da”, esan digute euskara elkartetik. “Altzora Eguna arrakastatsua izaten da eta herriko elkar-
teek bat egiten dute ospakizunarekin. Giro ezin hobea izaten da, eta aurten ere horrela izatea espero dugu”.



Oihan Vega

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Orduen-zentroa & Hortz-esetika
HORTZ-PLANTAEK - ORTODONTZIA ESTETIKOA
DANTZAK, ZIN, OILAK

Dr. Arcelus kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urtegi plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

RPS. 18410



OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrearragoiti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Udako argazkiek badute saria

Altzora Sondikako euskara elkar-teak Oporretako Argazkien Lehiaketa antolatu du bosgarren aldiz. Beraz, uda honetan bazoaz mendira, hondartzara, herrira, uharte xarman-garriren batera, atzerrira... edo etxean gelditzen bazara, ez galdu aukera. Aukeratu oporretan ateratako argazkirik onena eta bidali altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora. Irailaren 12ra arte aurkeztu ahal izango dira argazkiak jpg formatuan. Parte-hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi bidali ahal izango ditu eta datu hauek ere zehaztu beharko ditu: izen-abizenak, telefono zenbakia, data eta lekua. Nahi izanez gero, argazkiaren izenburua edo hari buruzko esalditxo bat ere idatzi ahal izango da. Irabazleak sari bi izango ditu aukeran: lagun biren-tzako bazkari bat ala gaua landaturismo batean pasatzea.

Isolamendu Plana

AENAtik adierazi dutenez, orain arte 1.071 eraikin intsonorizatu dira Loiuako Aireportuaren Isolamendu Akustikoaren Planaren barruan. Lanetan 14,5 milioi euro ipini dituzte. Jarraipen Batzordea uztaillean batu da eta azaldutakoaren arabera, Planaren barruan zazpi etxebizitza berri sartu dira. Era berean, soinua neurtu da zenbait eraikinetan eta lanak beste 82 eraikin gehiagotan egin beharko direla ikusi da.

Zamudio-Zamudio Zikloturista

a: Mari Carmen Noya

Herriko hitzordurik garrantzitsuenetarikoa bat da eta jende asko batzen du; iaz, esate baterako, 600 lagun inguruk hartu zuten parte bertan. Aurten, irailaren 19an egingo dute Bidekoetxe parkean. Txartelak eta kamisetak 09:30etik 11:00etara bananduko dituzte eta lasterketa 11:30ean hasiko da. Parte-hartzaileek, guztira, hiru buelta eman beharko dituzte atonduko den zirkuitutik. Umeen-tzako mountain bike zirkuitua ere antola-

tuko da, eta ogitartekoak banatuko dira txirrindularien artean, indarrak berri ditzaten. Bazkaldu ostean, erromeria egingo da.

Zamudio-Zamudio Zikloturistan izena ematea irailaren 18ra arte egin daiteke Udaletxean. Hamazortzi urtetik beherako zamudioztarrek euro bi ordaindu beharko dute; eta 18 urtetik gorakoek, hiru euro. Gainerakoek, bost euro. Prezioaren barruan txartel bi sartzen dira: alde bate-tik, kamisetari dagokiona; eta bestetik, ogitarteko eta edariarena.



Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra



Arbolantxa kalea, 8 - 1. izk.
ZAMUDIO
Tel/Fax: 94 452 29 10
Móvil: 665 70 33 12

Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio TAXI



Txoriemiko etorbidea, 6
Tel: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com


luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (lorja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel: 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



Iván Ivenian derioztarra, hobeizina

Gazte horrek Bocabeats Comedia bikotea osatzen du Aitor Vidaurretarekin batera, eta uztailan TVEko *Insuperables* saioan hartu zuten parte. Saio hori *talent show* bat da eta bertan *beat box* (soinuak ahoarekin) eta umorea uztartzen dituen emanaldi bat eskaini zuten. Santiago Segura eta Ana Milán aktoreek eta Pitingo abeslariak epaitu zuten haien ikuskizuna. "Ez gintuzten aukeratu beste saio batean parte hartzeko, baina oro har pozik gaude. Uste dugu momentua aprobetxatu genuela", esan digu Ivánek. "Askok interesatzen zaigu halako saioetan agertzea, jendeak ezagut dezan gure lana. Izan ere, gure ikuskizuna ia bakarra da, beste inork

ez baititu *beat box* eta umorea uztartzen. Dena dela, gure ordubeteko saioak egiten ditugu normalean, eta oso zaila da hori, telebistarako, minutu bitan laburbiltzen".

Gazteek gogor egin dute lan, beren ikuskizuna prestatzeko, eta gaur egun, Paramount Comedy zirkuituaren barruan daude, hainbat komikorekin eta bakarrizketagilarekin batera. "Telebista beste urrats bat izan da gure karreran". Baina ez da izan Iván telebistan agertu den lehenengo aldia, 2012. urtean beste *talent show* batean parte hartu zuelako; *Tu sí que vales* saioan, hain zuzen ere. Bikotearen azken emanaldia YouTubean dago ikusgai: *Insuperables: BocaBeats*.

Kepa eta Areneren oroimenezko lasterketa

Gure Señeak elkarteak Kepa eta Arene Derioko neba-arreben oroimenezko lasterketa antolatu du bosgarren aldiz. Lasterketa irailaren 13an izango da eta herri-ikastetxetik irtengo da 10:30ean. Guztira, hamai-ka kategorია izango dira: umeak, kirol egokitua, promesak eta beterranoak, besteak beste. Izena emateko, 94 454 01 59 telefono zenbakira (kiroldegia) deitu daiteke, edo gure_seneak@yahoo.es helbide elektronikora mezu bat idatzi. Izena ematea doakoa da, baina donazioak egin ahal izango dira itteeran ipiniko den mahaian. "Parte-hartzaileen kopurua iaz jaitsi zen arren, normalean jendetza handia batzen da lasterketan. Orain dela bi urte, esate baterako, 500 korrikalari izan genituen. Aurten ere, lasterketa arrakastatsua eta jendetsua izatea espero dugu", esan digute antolatzaileek.



a: Gure Señeak elkarteak.

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txoriso 4, behe B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

IRATXO
gozotegia

larta pertsonalizatuak
trufak
teinak
pastelak
postalak

Mikel Zurita, 2 - 3. lonja • Sondika, 48150 • 94 643 89 74

Txorierri
Rocio Astorkia Bordegaray
Kepa Herguedas Manso
Maria Conde Bilbao
Ainhoa Rodríguez Mella

Mitxine 8, behe - 48150 - Sondika (geltokiaren aurrean)
T: 944 711 839 - Larrialdia: 670 985 885 - www.txorierri.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

Butroi upategia

Etxeko txakolina



Badago ezaugarri bat Butroi upategia bereizten duena: haren familia-izaera. Lau familiak sortu zuten upategia orain hiru urte: txakolingintzan eskarmentu handia duten hiru upategi txiki (Zamudioko Oletxe, Larrabetzuko Sasines eta Gatikako Etxebarria) eta mahats-ekoizle bat (Maje Larrañaga lezamarra). Kepa Larrabeitik azaldu digunez, ekoizle txikien-tzat zaila da, besteak beste, merkatuaren eskakizunetara moldatzea eta azpiegiturak egokitzeko behar diren inbertsioak

egitea. Horregatik erabaki zuten indarrak batzea.

Gatikan eraiki dute upategia. Guztira, 14 hektarea dituzte eta gehienak, 12,5 ha, Txorierrin daude; beste hektarea eta erdia Gatikan dago. Urtean 100.000-120.000 litro txakolin ekoizten dute eta, upategi bakoitzaren lehengo marka mantendu duten arren, marka berri bat ere merkatu-ratu dute: Butroi txakolina. "Gure txakoli-nek euren merkatua dute, eta ondo funtzionatzen dute, baina egitasmoa mar-

txan ipini genuenean, hektarea apur bat gehiago landatzeko aukera izan genuen eta, beste alde batetik, banatzaileek eskatu ziguten beste marka bat ateratzeko. Butroi txakolinak ere oso harrera ona izan du". Egia esateko, lau txakolinek hain ondo funtzionatzen dute, ezen upategia "egoera larrian" baitago momentu honetan, produktu guztia salduta daukatelako. Aipatu beharra dago, gainera, aurten Txorierriko hiru txakolinek lortu dutela Baco sarien urrezko domina, eta haietako bat Butroi upategiko Sasines txakolina izan dela. Besteak Garena-Gorka Izagirre eta Magalarte Zamudio izan dira.

Kalitatea eta prezio ona

Butroi upategia Txakolibus egitasmo-ko partaidea da eta txakolin-dastatzeak egiten dituzte bere instalazioetan. Talde handiei ez ezik talde txikiei eta norbana-koei ere eskaintzen dizkiete halako dastatzeak. Euskaraz egiteko aukera ere izaten da. Bisitaldiak egitea oso lagungarria da upategia eta haren produktua ezagutzera emateko. "Guk tratu eta produktu ona eskaintzen dugu, eta gero ahozkoa dator. Berton egon diren askok gure txakolina eskatzen dute kanpoan, tabernan...". Kepak oso balorazio positiboa egin du upategiaren lehenengo hiru urteei buruz. "Kalitatea eta prezio ona eskaintzen ditugu, eta erantzukizunez eta zintzotasunez jokatzeko dugu. Bai guk, bai gure bezeroek. Nire ustez, dinamika hori ezinbestekoa da merkataritza mundu honetan".

TXAKOLIN DASTAKETAK EUSKERAZ
(taldeentzat)

✉ txakoli@butroi.com 🌐 www.butroi.com ☎ 618 160 514 / 639 469 738



Emakume txapeldunak gure frontoietan | Jone Goiri, pilotaria (Larrabetzu)

Jonek estutasunean jarri du beti gizonezkoen munduan oinarrituta egon den kirola: pilota. Txikitatik hamaika kiroletan aritu ostean, honako hau aukeratu du gazte larrabetzutarrak, eta bokazio bihurtu du bere pasioa. Irujo bere erreferente nagusia izan arren, Jonek berdintasunaren aldeko apustua egiten du: "Neska pilotariek mutilek besteko ikuskizuna eskaini dezakete".

Argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.atomikastudio.com

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZ-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

CONDOMINIO LURLANGILEEN ETXEA
1961 - 2006

COOPERATIVA HORTIKO SAKOAK
ZAMUDIO BERRI

SANTI MAMI
ALBAILARIETZA
Nerea Pedrosa Gelpi, SIF
COOP. SAKOAKEN ZAMUDIO BERRIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

Magalarte Txakolina

Arretxabaletan hordin eta botez aratzen

75 cl.
10,75 % vol.

Beizako Txakolina
Denominación de Origen

Irñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

a: I. Zarate, R. Gómez "Txiki", IZAE argazki taldea


Eguraldi ona, giro ezin hobea eta herriko taldeen parte-hartzea. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak Lagatzu Eguna-Euskal Jaia ospatu zuen ekainaren 27an eta, aurreko edizioetan bezala, bikain erantzun zuten zamudiotarrek zein beste herrietatik etorritako txorierritarrek. Ekintzak egon ziren egun osoan zehar. Goizean, dragoi bat atera zuten kalejiran eta, horren ostean, 600 lagun baino gehiago batu ziren *Bizi gure kulturaren* abestiaren *lipdub*-a grabatzeko. Ekintza horretan herriko elkarte guztien ordezkariak hartu zuten parte. *Lipdub*-a eta haren *making of* YouTube ipini dituzte ikusgai: Lagatzu eguna *lipdub* 2015 finala eta Lagatzu Eguna 2015 Making of. Era berean, lagatzu.org webgunean ikus daiteke,

eta DVDa herriko dendetan eta tabernetan eros daiteke euro biren truke. *Lipdub*-ak ikusmin handia sortu du eta YouTube-ra igo zen haren aurrerapena 1.000 lagunek ikusi zuten 24 orduan.

Kale-jira-bira-dantza-poteoa egin zuten eta herri bazkarian ere 600 lagun inguru elkartu ziren. Bazkalondoa Taberna Ibiltariak girotu zuen, eszenatokira igo ziren lagun eta taldeen laguntzarekin. Erromeria Trikizio taldearen eskutik izan zen eta jaia gauera arte luzatu zen. Giro ederra egon zen Zamudion goizetik gauera arte, eta Lagatzukoak pozik baino pozago eta hunkiturik irten ziren ekintzatik. Lagatzukoak eta gainerako guztiak ere bai.

Herri bat martxan





Untzaga Baita Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BATXILERGOAK

LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- * Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2 ordu)
- * Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Produkzioaren Programazioko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- * Ingurumen-Heziketa eta Kontrolleko goi-mailako teknikaria,
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- * Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)
- * Telekomunikazio- eta Informatika-Sistemako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- * Salmenten kudeaketako eta Merkataritza Arloetako goi-mailako teknikaria
Goi-mailako zikloa (2 ordu)

"Baliagarri sentidu gara"

GARAZI ETA MAIALEN | borondatezko lankideak

Garazi Astorkiza eta Maialen Atxutegi zamudioztarrak errefuxiatu sahararren kanpamentuetan izan ziran ekainean. Bidaia materiala eroatea euki eban helburu, baita errefuxiatuen egoera zuzenean eza-gutu eta umeakaz hainbat egitasmo jorratzea be.



t: Itxaso Marina

Zamudioztarrak Bojadorreko *willaya*-n egon dira. "Egoera gogorragaz egin dogu topo, baina guk pentsetan gendua baina eroangarriagoa izan da. Egia esan, nahiko babestuta izan gara eta uste dogu hango errealidadea apur bat itxuraldatzan saiatu dirala". Kanpamentuetara joan baino lehen, materiala batzeko kanpaina ipini eben martxan herrian. "Batez be ume txikientzako arropa-eta batu genduan, eskolako materiala... Bidaian parte hartu eben beste lagunek be halako kanpainak egin ebezan euren herrietan eta guztion artean lortu genduan materiala nahiko batzea". Gai askogaz osatutako paketeak egin eta familia sahararren artean banatu ebezan. Eskolako materiala ikastetxeetara eroan eben; eta medikamentuak, ospitale batera. "Asko eskertu eben eroandakoa, baina azaldu euskuen laborategiak sortzen dabilzala, eta gai dirala ibuprofenoa eta antzeko medikamentuak bertan egiteko. Hareek beste medikamentu batzuk eta kirurgia-materiala behar dabez; ebakuntza egiteko artaziak, adibidez. Hurrengo urteari begira, benetan behar daben material zerrendea osatu eta materialok hara eroaten ahaleginduko gara".



Kanpamentuetara gaez ailegau ziran eta hurrengo egunean benetan ohar-tu ziran non egozan. "Altzau ginan eta dana zan area. Dana, ezbardina, harrigarria... Gu egon ginan etxean, esate baterako, ez egoan aterik eta teiltua gela bakan batzuek baino ez eukien. Etxeko familiak patioan egiten eban lo, guztiak alkarregaz. Eta hemen kalean txakurrak ikustea ohikoa bada, ba, han ahuntzak. Eta gameluak..." Hasierako harridurea gaindituta, Garazi eta Maialen arazo barik murgildu ziran herri sahararraren egunerokota-

sunean eta ohituretan, eta zuzenean eza-gutu ebezan beren premiak, proiektuak eta itxaropenak. "Goizean, egitasmoak-eta ezagutzera joaten ginan: emakumeen etxea, ospitalea, ezinduen eta adingabe-koen ikastetxeak, arte eta musika ikastetxeak, ikus-entzunezko eskolea... Egitasmoen nondik norakoak kontau euskuezan eta, egia esan, nahiko ondo funtzionaten dabe. Arte ikastetxea martxan ipinteko, adibidez, Andaluziatik jaso dabe finantzazioa. Laguntzarik handiena handik eta Euskal Herrik jasoten dabe. Beste alde batetik, militarren desfile bat ikustera be joan ginan, eta Marokoren eta Sahararen arteko hesia".

Algara

Bazkaldu eta litxarreriaz beteriko poltsatxoak prestaten ebezan, tailerren ostean umeen artean banatzeko. "Beroa dala-eta, ezin zan arratsaldeko 6ak arte etxetik urten eta tailerrak 20:00ak arte egiten genduzan, gero umeak etxera bakarrik itzuli behar ziralako. Futbol eta errugbi tailerrak egiten genduzan, arpegiak margotu, jolasak, esku-lanak... Urte bitik 16 urtera bitarteko ume eta gaztetxoak ziran; oso arduratsuak. Neba-arreba nagusiek txikiak zaintzen ebezan. *Daira* txiroe-



netariko umeek ez eukien gu gengoan lekuraino hurbiltzerik, eta hiru aldiz joan ginan hara, hareek be ekintzakaz gozeta-ko. Lehenengo aldia zan, esaterako, batzuek arpegia margotzen ebela eta euren burua espiluan ikusten ebela... Hori bai algarra! Itzela...".

Zamudioztarrak egon diran kanpamentua elektrizidadea eukean bakarra zan. "Esan euskuen beste batzuetan be ipiniko ebela. Kamioi batek ekarten ebazan ur-bidoiak, baina guk botilako ura bakarrik edaten genduan. Familiaren arabera, baliabide gehiago edo gitxiago daukie. Batzuk Kuban ibili dira ikasten eta beharrean, eta diru nahiko lortu dabe kanpamentuetan "ondo" bizitzeko. Etxe batzuetan telebista eta guzti dago. Beste batzuk, oster, ez dira inoz handik atera eta lanik ere ez daukie. Han dagozan osasun-arazo nagusietako bi desnutrizioa eta anemia dira. Desnutrizioak jota hil zan ume baten kasua ezagutu genduan...". Nesken esanetan, beharraren kontzeptuak beste garrantzi bat hartzen dau kanpamentuetan. "Mediku batek,

adibidez, gitxi irabazten dau, baina nahikoa han bizitzeko. Dana dala, hareek beste pentsamolde bat daukie eta komunitadearen onurarako egiten dabe behar, ospitalean, eskolan, ezinduen etxean... Beste batzuk nekazaritzan dabilz, mekanikoak dira edo dendariak. Uleapaindegiren bat be ikusi genduan".

Zoriontsuak

Kultura arloan oso ezbardina dan herri bategaz topo egingo ebela baekien; halanda be, harritu egin dira batzuetan. "Emakumeei begirune handia deuseela esan euskuen, gizonak gerran ibili ziran bitartean, hareek kanpamenduak atontzen ibili ziralako. Baina guk ez dogu egunerokotasunean gizonen eta emakumen arteko parekotasunik ikusi. Are gehiago, tailerretan mutikoak eta neskatok banatzeko esaten euskuen, bardinak ez ziralako". Egon diran familiak urte batzuk daroaz bisitariak etxean hartzen eta, ondorioz, hemen lege egin dabez otorduak. "Beren platerak dastatzeko aukerea be euki dogu; *cous cous* gamelu-okelea-

gaz, adibidez". Desertuaren tenperaturara be ondo moldatu ziran. "Egunean zehar egundoko beroa; eta gauean jertsea ipini behar genduan batzuetan".

Oso esperientzia ona eta aberasgarria izan dala adierazo deuskue, guztiz gomendagarria. "Berton daukaguna baloraten ikasi dogu, eta arazo txikiei hainbesteko garrantzia ez emoten. Zoriontsu sentidu gara egunero, eta baliagarri. Gu gaz egotea atsegin eben, eta egunen baten tailerrak-eta ezin bagenduzan egin, gure falta igartzen eben". Duda barik, jentegaz gelditzen dira. "Oso eskuzabalak dira, gitxi daukien arren, zoriontsuak eta gu baino askoz aberatsagoak. Euren bizitza-eritmorra erraz moldatu ginan, ez genkian zein egunetan eta ordutan bizi ginan... Eta bat-batean Madrilera ailegau ginan, estresa barriro, arpegi txarrak...". Datorren urtean kanpamenduetara itzultzeko asmoa daukie. "Laguntzea asko baloretan dabe, baina esan euskuen benetan gura dabena dala euren egoerea ezagutzera emon daigula, eta ez ahiztutea hor dagozala".

"Beste pentsamolde bat daukie, komunitadearen onurarako egiten dabe behar, ospitalean, eskolan..."

"Euren egoerea ezagutzera emon daigula gura dabe, eta ez ahiztutea hor dagozala"

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO-GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98 Fax 94 454 14 18 Mungia de etorbidea, 25 48160 DERIO

t o k t a k **EGUNEKO MENUA**
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria **9€**
Bestorrene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

TRIPPY
TABERNA
Espezialitatea:
GIN TONIC
Beheko kalea - DERIO

Orain hilabete batzuk, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak, Mugikon enpresaren eta Osakidetzaren osasun-zerbitzuen laguntzarekin, ariketa fisiko gidatua sustatzeari ekin zion Mugiment proiektuaren bidez. Orain, esperientzia pilotu hori amaitu eta emaitzak aztertu ostean, ondorioa argi dago: sekula ez da berandu osasuna zaintzeko, eta, behar bezala eta profesionalak lagunduta zaintzen badugu, bizi-kalitatea eta egoera fi-

Zer egin osasuna zaintzeko? Mugiment!


sikoa hobe ditzakegu, nahiz eta adinekoak izan.

Arrisku-faktore kardiobaskularrak ziztuzten hasierako 67 partaideetatik 46k

Mugiment proiektuaren fase guztiak burutu zituzten. Gainera, proiektuaren emaitzek erakutsi dute egitasmoa oso onuragarria izan dela.

GOGOBEKETASUN-INKESTAREN EMAITZAK

1=BATERE GUSTURA EZ; 5=OSO GUSTURA
(46 PARTAIDE)



Lehiaketa Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta Erandioko Gazteria Sailek antolatu dute. Zazpi finalista egon dira eta CD bat grabatuko dute estudio profesional batean. Gainera, irabazleek Gatillazo taldearekin batera joko dute abuztuaren 28an, Altzagako jaietan. Hauek dira finalistak eta emaitzak:

Irabazleak:

The Godoys Wonderers–Pachellbells
wink

Gizarte sareen saria:

Berrea–Quién soy yo

Gainontzeko finalistak:

Endemaño–Endemiño

La Vieja–Corazón de cuero

Own Code–Eguna badoa

Ukan–Fraking ez

Sin Tiempo–Bihotz zaurituak

Txorierriko II. Musika Lehiaketa



Own Code taldea



GMI (pisua) eta arterietako presioa murriztu dira

Alde batetik, partaideek asko hobetu dute egoera fisikoa. Hori neurtzeko, parametro fisiko ezagunak erabili dira: besteak beste, gorputz-masaren indizea (pertsonen masaren eta altueraren arteko lotura) eta arterietako presioa (odolak arterietako hormen kontra egiten duen presioa). Biak ala biak nabarmen murriztu dira kirola egiten aritu ondoren.

Egoera fisikoa hobetu da

Bestalde, kirol-agenteeek ariketa fisikoarekin loturiko gaitasunetan oinarritutako zenbait parametro funtzional aztertu zituzten, eta, emaitzek erakusten dutenez, partaideek asko hobetu dituzte neurtutako indize guztiak (kasurako, zenbat denboraz eutsi ahal dioten orekari, edota zenbat metro egiten dituzten denbora-tarte jakin batean). Azkenik (eta are datu harrigarriagoa da), Mugiment proiektua burutu zuten partaideek nabarmen hobetu zuten beren egoera fisikoaren gaineko pertzepzioa.

Horrez guztiaz gain, erabiltzaileak oso pozik agertu dira proiektuarekin; izan ere, bikaintzat jo dituzte hala Mugiment proiektuan izandako esperientzia nola prozesuan gidatu dituzten profesionalak eta programaren antolakuntza.

Ezagutu aukeratzeko

“Ezagutu aukeratzeko” programa beste behin izan da arrakastatsua. Xehetasun guztiak ezagutu. txorierrivalley.com webgunean ikus ditzakezue; nolanahi ere, ikasturte honetako emaitzak hurrengo lefroetan batu ditugu.

BTEKn egindako jardunaldiek DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleen gurasoei irteera sozioprofesionalei buruzko informazioa ematea eduki dute helburu. Bertan 24 lagunek hartu dute parte; 16k, iaz. Sektoreko mahaiak IDDTEK eta ZIV enpresetako ordezkariak osatu dute, eta Politeknika Ikastegiko Batxilergoko 2. mailako ikasleekin ibili dira solasean (46 ikasle). Bestalde, Txorierri institutuko 43 ikaslek arretaz entzun dute arlo ezberdinetako enpresetako hiru profesionalen ibilbidea.

Ikasturte honetan hurrengo enpresak bisitatu dira: Maier eta Ormazabal (Politeknika Ikastegiko 17 eta 25 ikasle hurrenez hurren) eta Bizkaiko Eliza-agiritegi Historikoa (Txorierri Institutuko 18 ikasle). Baina programako ekitaldi nagusia Enpresetan egonaldia izan da. Aurten, programan izena eman duten ikasleen % 100ek eduki dute enpresa



batean egoteko aukera, 75 ikasle hain zuzen ere; 40, aurreko ikasturtean. Emaitza on horiek guztiak enpresa hauen arteko lankidetzaren ondorioa dira: EGAZ Txorierri, Politeknika Ikastegia, Txorierri Institutua, Bizkaiko Foru Aldundia eta Txorierriko Mankomunitatearen Gazteria Saila.



Txorierri Games

Ekainean, “Txorierri Games” jokoak egin ziren Mankomunitateko udalerrri bazuatan. Lokalean taldeak, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera, lau proba antolatu zituen eta bertan 25 gaztek hartu zuten parte. Probak lau arlori egon ziren lotuta: kirola, adimena, trebetasuna eta gastronomia. Sin control taldeak, Derioko 16 urteko neskek osatzen zutenak, lehenengo saria irabazi zuen; eta bigarrena, Bonsai tuerto Loiuko taldeak. Saritzat 70 euro eta 30 euro jaso zuten hurrenez hurren. Sariak Txorierri Valley Merkataritza elkarteak eman zituen, zeinetan hurrengo dendarien elkarteak baitaude: Sondikan Berton, Bizi Zamudio, Lezama Saretzen eta Deriocom.



Larrabetzu herriko ondarea

t: Gaizka Eguzkitza / a: Hori Bai, Idoia de Andrés

Zorionak Hori Bai Gaztetxeari! Ez da marka makala 50 urte betetea, ez horixe! Are gitxiago, herritarrek eurak kudeatutako alkartea danean, erakunde publikoen ezelako laguntza barik. Hori Baik euskera eta kultura dauz ardatz nagusi alde batek; bestetik, autogestinoa, hau da, euren antolatzen eta ordaintzen ditue ekintza guztiak. Arrazoi bi horregaitik da Hori Bai erreferentea Larrabetzun, eta ziur asko, baita Txorierri mailan be. “Gaztetxea baino gehiago gara. Beste herri batzuetan alkarteek antolatzen ditue ekitaldiak urtean zehar. Larrabetzun, barriz, guk geuk hartzen dogu ardura hori”, dino Miren Zorrozuia Hori Baiko kide batek.

Ezin da ulertu Hori Bai Gaztetxea, Larrabetzu herriaren babesa eta atxikimendua barik. Garai txarrak egon diranean, edo ekitaldi handi bat antolatu behar danean, herriak beti egiten dau bat gaztetxeagaz. “Bai, herria beste partaide bat da”, esan deusku Leire Amenabar kideak.

HORI BAI GAZTETXEA

Andra Mari kaleko 23. zenbakia beti izan da leku esanguratsua Larrabetzun. Garai baten, eskola egon zan bertan, eta abadearen etxea be izan da. Halanda be, azkeneko 50 urteotan Hori Bai Gaztetxearen egoitza izan da. Alkarteak urteurren biribila egin dau aurton, eta zoriondu gura izan dogu.

“Gure berezitasunetako bat hau da: gazteei zuzendutako ekintzak egiten doguz, baina hareetaz aparte herriari be eskaintzen deusaguz ekitaldiak. Gazteok mugiten dogu gaztetxea, baina adin guztieta-ko lagunek laguntzen deuskue behar danean”, aitatu dau beste kide batek, Kattalin Bárcenak.

Beharbada horregaitik, herriak eta gaztetxeak alkarri adierazotako atxikimendu parebako horregaitik, egon dira Hori Baiko atea irekita azkeneko 50 urteotan. Larrabetzuarrek, belau-

naldi, giltzak emon deutsez alkarri: gurasok seme-alabei, eta seme-alabek euren seme-alabei. Etenbako katea. “Guk etxean, txiki-txikitatik, bizi izan dogu Hori Bai, gure gurasok eta euren gurasok be izan ziralako erkidego handi horren partaide. Eta arazoren bat euki dogunean, herriak lagundu deusku korapiloak gainditzeko. Larrabetzuarrek sentidutan dabe Hori Bai herriko ondare bat dala”.

Hori Baik beste marka eder bat dau: Euskal Herriko gaztetxerik zaharrena da. “Hori Bai gaztetxe bakarra dalako da



Historia

Hori Bai Gaztetxea 1965ean sortu zan, eleizak eta herriko gazteek sinatu-tako hitzarmenari esker. Alkarte barrian hainbat ekintza bultzatu ziran: futbola, alfabetatze ikastaroak, mendi martxak, zine emonaldiak, kanpamentuak... Hori Baik euskeraren aldeko apustua egin eban hasikera-hasikeratik, eta Larrabetzutik, besteak beste, Agustin Ibarrola, Juan Mari Torrealdei eta Gabriel Aresti egon ziran. Kontzertu politak be antolatu ditu: Negu Gorriak, Su Ta Gar, Zarama...

1981ean, eleizak lokala ixteko agindua emon eban, eraikina oso baldintza txarretan egoalako. Lokalak bost urte emon eban itxita, baina gazteek barriztu egin eban eta 1986ko abenduaren 24an barriro ireki eban Hori Bai. Bi urte lehenago, 1984an, alkartearen 20. urteurrena ospatu eban, eta bide batez, Gazte Eguna antolatu eban lehenengo aldiz. Garai hatan ize-



na aldatu eban: Hori Bai alkartea Hori Bai gaztetxe bihurtu zan.

Bere ibilpidean Hori Bai ez dau hartu-emon onik euki Udalagaz eta eleizagaz. Hori Baik bere egoitzatik botateko mehatxu batzuk jaso ditu, baina auzolanari esker eta herriko atxikimenduari esker, mehatxuak ez dira oraingoz gauzatu.

garrantzitsua Txorierri mailan. Gaur egun gazteek alkarreak sortu ditue Hori Bairi esker. Asko eta asko etorri dira hona, eta beste herrietara zabaldu dabe gure asanbladaren eredua. Erreferenteak gara gazteentzat, eta babesa be emoten deusegu. Eta beste herrietako gazte asanbladakaz alderatuta, oso talde gaztea da gurea, nagusiak 27 urte baino ez ditualako”.

Urteurrena

Aurton 50 urte bete dauz Gaztetxeak, baina kideek ez dabe ospakizun handirik egin gura. Apaltasunez ospatuko dabe, betiko legez. “San Inazio egunean, uztailaren 31n, hain zuzen be, beteko doguz 50 urte, eta egun horretan ospatuko dogu herriagaz batera. Horretaz aparte, zenbait belaunalditako lagunakaz gagoz berbetan, bakotzak bere esperientziaren barri emoteko Hori Bai Gaztetxeari buruz. Horregaz liburu eta bideo bat egitea dogu helburu, baina gatx ikusten dogu aurton bukatzea. Beste alde batetik, uda pasetan danean, ekitaldiren bat egingo dogu, baina oraindino zehaztu barik dago”.

Beharbada, Hori Baikoez ez dabe eukiko denpora handirik ospakizunak anto-



SARRERAK AURRETOKI EROSTEKO:
TXARTELEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago.





SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13



ANTZERKIA
SANTI RODRIGUEZ
*Como en casa de uno...
en ningún sitio*

Irailak, 18
1. saioa: 20:00etan
2. saioa: 23:00etan
Prezioa: 10 €



Goiko aldean, 50. urteurrenaren logoa. Eskuman, Sanjoanetako antzerkia. Eta ezkerrean, 2008ko Gazte Egunean egiten dan herri bazkaria.



Gaur egun, 12-15 lagunek kudeatzen dabe Hori Bai Gaztetxea. Eta haietako bizpahiru baino ez mutilak

latzeko, urtean zehar hainbat ekitaldi prestaten dituelako. Esate baterako, Gabonetan egitarau oparoa antolatzen dabe: kontzertuak, bertso-saioak, pelikulak, txokolatada, kotilioia... Gainera, kalejira bat egiten dabe Olentzerogaz abenduaren 24an, eta aurreko egunean, pistak ixten deutseez herritik umeei, Olentzeroren bila ibiltzeko. Era berean, Inauterietan, desfilea eta erromeria antolatzen ditue, eta, zelan ez, udan, Gazte Eguna.

Beste ekitaldi garrantzitsu bat sanjoanetan egiten dan antzerkia da. "Horrek balio deusku Hori Baira belaunaldi barriak erakarteko. Hemen gagozan guztiok holan sartu ginan (kar, kar): lehenik eta behin hasten zara antzerkia prestaten; gero antzezlanak jente aurrean antzezten dozu; eta hurrengo egunean, Hori Baira joaten jarraitzen dozu. Oso prozesu naturala da. Gainera, uda hasibari danek, gazteek denpora libre gehiago dabe eta oso

garai aproposa da eurak Hori Bai gaztetxera hurbiltzeko. Antzerki horretan jente pilo bat batuten da, herriak badakialako egun horretan antzerkia egongo dala. Oso polita da", dino Kattalinek.

Hori Baik berak antolatzen dituan ekitaldiak batera, askotan Gaztetxeko kideek laguntasuna emoten deutsee herriko beste alkarte batzuei ekintzak egiteko. Esate baterako, bigarren eskuko produktuen azoka egin eben uztailan. "Halako ekintzak ezohikoak dira, eta hareek antolatzea askoz gaxtagoa da urteroko ekitaldiak egitea baino. Izan be, ez dakizu jenteak zelan hartuko dituan, gustauko jakezan ala ez. Baina tira, hortik be ikasten da... (kar, kar)".

Konpromisoa

Gaur egun, 12-15 lagunek kudeatzen dabe Hori Bai Gaztetxea. "Partaide izateak

konpromiso handia eskatzen dau, eta norberak aukeratzen dau zelango inplikazio maila hartzen dauen. Adibidez, gaur egungo belaunaldiak beldur deutso konpromiso handiegia hartzeari. Umeek hona sartzeko jakin-minari eusten deutsie, baina adina heltzen jakenean, ez dabe pausoa aurrera egiten, eta ez dira asanbladetara hurbiltzen. Halanda be, laguntasuna eskatzen dogunean, herri osoak egiten dau bat gugaz", esan dau Mirenek. Kide gehienak, bizpahiru izan ezik, neskak dira. "Pena da mutilak ez inplikatzeko. Harrigarria da, Larrabetzun mutilak egon badagozalako, baina tira...".



Gazte Eguna

Hori Bai Gaztetxeak hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar, baina ziurrenik Gazte Eguna da handiena. Aurton 31. aldiz egingo da eta, betiko moduan, egitarau oparoa prestau dabe abuztuaren 1erako. "Larrabetzu Gazte Egunari eta Hori Baii esker da askotan ezaguna, eta hori oso pozgarria da, harro egoteko modukoa. Harrigarria da gu bezalako talde txiki bat Gazte Eguna bezalako ekitaldi handi bat antolatzeko gauza izatea", dino Kattalin Bárcena Hori Bai Gaztetxeako kideak, poz-pozik.

Betiko legez, herriak bat egiten dau gaztetxeagaz, eta izugarritzko laguntza emoten deuto: gurasoek ogitartekoak egiten ditue, baita txosnako txandak be; ogia eta postrea Sarrikolakoek ekarten ditue, tabernariak eszenatokia ordaintzen dabe.... "Oso ekitaldi handia danez, jente pilo batek laguntzen deusku; bestela, guk bakarrik ezin izango geunke antolatu. Egun horretan ateraten dogun dirua Gazte Eguna bera antolatzeko erabiltzen dogu, guzurra iruditzen arren".

Autobus bat, Elorriotik

Kanpora begira izugarritzko oihartzuna dauka Gazte Egunak. "Oso hunkigarria da Euskal Herri osoko gazteak Larrabetzun ikustea: nafarrak, giputzak, arabarrak... Elorriotik autobus bat antolatzen dabe hona etorteko. Uste dot urteko egunik jentetsuena dala Larrabetzun. Eta horrek adorea emoten deusku aurrera jarraitzeko", esan deusku Miren Zorrozuak, Kattalinen kideak.



"Egun polita da, baina aldi berean oso urduri gagoz. Alde batetik, eguraldiari begira ibiltzen gara. Izan be, euria eginez gero, jente gitxiago etorriko da. Bestetik, dirua. Egunean bertan lortzen dogu dirua, eta ordaindu behar dogu. Izugarri nasaitu egiten gara dana ordainduta daukagunean. Eta bestetik, kontzertuak. Gatxa da taldeak aukeratzea, eta presinoa sentiduten dogu, ez doguzalako jentearen itxaropenak huts egin gura".

Gazte Eguna jaia da noski, baina aldarrikapen-ukitu bat be badau. Gainera, giro berezi bat sortzen da egun horretan. "Ez da parranda handi bat bakarrik. Larrabetzu herri txikia danez eta jaietako hiru aretoak oso gertu dagozanez, giroa erabat kontzentrauta dago eta oso polita da. Beharbada geure herria dalako esaten dogu hori, ez dakigu, baina holan sentiduten dogu (kar, kar)".

Apaizak ez dau gura gazteak bertan egoterik; beraz, hainbat hika-mika sortu dira elizaren eta Hori Bairen artean

"Guk txiki-txikitatik bizi izan dogu Hori Bai, gure gurasoak eta euren gurasoak be izan ziralako partaide"

Hori Bai Gaztetxea Andra Mari kaleko 23. zenbakian dago, eleizaren alboan. Baina fisikoki bakarrik dago eleizaren alboan. Apaizak ez dau gura gazteak bertan egoterik, eta urteetan zehar hainbat hika-mika sortu dira elizaren eta gaztetxeako kideen artean. "Orain dala gitxi etorri ziran apaiza eta arkitekto bat, eta esan euskuen proiektu bat ebela: gaztetxea eta eleiza lotu gura ebezan ate baten bidez, eta Hori Bai goiko aldean gela batzuk eregi gura zituen... Guk ez dogu hori gura. Berba egin genduan apaizagaz, eta proiektua, guk dakigula, geldirik dago, baina esan eustan etxea itxiko dauela jausten".

Ez, eraikina ez da inoiz eroriko, Larrabetzu herriak onartuko ez dauelako, eta hori agerian itxi dau Hori Bai Gaztetxearen historian zehar. Auzolanean oinarrituta, larrabetzuarrek behin eta barriro konpondu dabe eraikina, edo gazteak bertatik ateraraztea ekiditeko prest agertu dira. Azken baten, Hori Bai Larrabetzu herriko ondarea da. Zorionak, Larrabetzu! Zorionak, Hori Bai!



a: Idoia de Andrés, Miren Zorrozuza

Larrabetzuko Udalak bandoa zabaldu eban uztailan, jaietan sortzen diran hondakinak murrizteko helburuagaz. "Udalak eta 0 Zabor herriko alkarteak gutako askok etxean doguzan edalontzi berrabilgarrei bigarren bizitza bat emon gura deusegu. Horretarako, edukiontzi bat jarriko da Udaletxeko atarian, erabili ez eta sobran doguzan plastiko birziklagarriko edalontziak bertan sartzeko. Batzen dana garbitzera eta higienizatzen eraongo da, espezializaturako enpresa batera; ondoren, herri bazkarietan, jai eta ospakizunetan erabili ahal izango dira urte osoan". Ekimen honeri esker, Udalak edalontzien erabilgarritasun epea luzatu gura dau, eta bide batez, jaiak jasangarriagoak izan daitezala.

Jaietako egitarauak eskaintzen dituen ekintzei jagokenez, abuztuaren 12an, futbol 7 txapelketa batek hasiera emongo deuse andamariari. Betiko legez, jaiak hurrengo egunean hasiko dira, abuztuaren 13an, baina ordurako herriko gazteak martxan egongo dira. Futbola gustetan ez jakenak, ostera, parte hartzeko aukerea eukiko dabe hasiera-hasieratik, abuztuaren 13an egingo dan musika lehiaketan, hain zuzen be. Parte-hartzaile bakotzak bere maila erakutsiko deuse herriari eszenatokiaren gainean. Hurrengo hiru egunotarako, aurreko urteetako egitarau antzeko bat prestau dau jai-batzordeak.

Abuztuaren 14an kirolari ekingo deuse sagu barriro, goizean triatloi herrikoia eta gauean pelotari profesionalen jaialdia antolatu dituelako. Bitartean, 20:00etan, txupinazoa botako dabe, eta Akermari, Paskuala eta Matxine lehendabiziko aldiz ibiliko dira Larrabetzuko kaleetatik, herriko trikitilariakaz eta txistulariakaz batera.

*Udalak bandoa
zabaldu dau, jaietan
sortzen diran
hondakinak murrizteko
helburuagaz*

Jai ekologikoak

Abuztua oporretako hilabetea izaten da, eta Larrabetzun hori ez eze, jaietako hilabetea be bada. Izan be, abuztuaren 13tik 16ra bitartean andamariak ospatuko dira; abuztuaren 24an, San Bartolome; eta abuztuaren 30etik irailaren 1era bitartean, emeteriak, Goikoelexalde auzoan. Intxurreta batzordeak antolatu ditu jaiak, Larrabetzuko Udalaren laguntzagaz, eta biek egin dabe ontziak berrerabilteko apustua. Jaiak ekologikoagoak izango dira aurtun.





*Larrabetzuko Udalak
jai zoriontsuak opa
deutsuez herritar guztiei*



Larrabetzuko Udala

IRUSTA TABERNA
EGUNEROKO MENUAK
eta GAUEZ
MUSIKA ETA PARRANDA

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77



Moro's Pub



Ondo pasa jaietan!

**INES
JANARI-DENDA**

Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33



Larrabetzuko euskara elkarteak



LARRABETZU
☎ 94455 81 97
**LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)**

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia



**POLITENA
TABERNA**

Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

Kalejirea Hori Bai Gaztetxean hasiko da, alkarte horrek aurton 50 urte bete ditualako. Drindots taldearen erromeriak eguna biribilduko dau.

Hurrengo egunean, goizean, Bizkargi alkarteak euskal dantzen erakustaldia eskiniko dau. Era berean, arrastian, batez be gazteenek pasauko dabe primeran Gorritiren animaliakaz. Ostean, karrozen kalejirea izango da eta gero, kale-antzerkia eta erromeria. Trapu Zaharrak taldeak Ongi etorri findemundo! saioa eskiniko dau, eta Garilak 26n taldeak, kontzertu bat. Andramariak abuztuaren 16an bukatuko dira. Goizean erraldoiak ibiliko dira kaleetan, eta jai-giroa ez moteltzeko, Sukalki Txapelketea egingo da eguerdian. Arrastirako herri kirolak eta Kataluniatik etorritako castellersak, hau da giza-gazteluak, antolatu dira.

Andramarien lekukoa San Bartolomeko jaiek hartuko dabe abuztuaren 24an. Goizean jai zaleak San Bartolomera igongo dira. Handik jaitsi eta paella txapelketa antolatu dabe, eta arrastirako, baita briska eta urkaritxo txapelketak be.

Emeteriak

Azkenik, abuztuaren 30etatik aurrera Goikoelexea auzoan eukiko dogu Larrabetzuko jaietako azken txanpea. Jaiak hiru egunetan egingo dira eta hareetan ohiko lehiaketak eta txapelketak egingo dira: mus, marmitako, briska.... Gainera, jai-batzordeak hainbat ekitaldi antolatu ditu: bertsolariak, igoera Barrenetxeara, idi-probak, zikiro-jana, euskal dantzak

*Trapu zaharrak taldeak
Ongi etorri findemundo
saioa eskainiko dau,
eta Garilak 26n
taldeak, kontzertu bat*

*Emeteriak abuztuaren
30etatik aurrera egingo
dira eta, betiko legez,
hareetan hainbat
ekitaldi antolatu ditue*

Aiko taldearen eskutik, Akermari, Paskuala eta Matxineren kalejirea... Musika zuzenean entzuteko aukerea be egongo da, Luhartz taldeak kontzertu bat eskini-ko daualako.

Irailaren 1ean Umeen Eguna izango da eta ekintza berezi batzuk egingo dira egun horretan. Goizean, martxa txiki bat egingo da Larrabetzuko plazatik Goikoelexalde auzora. Geroago, jokoak eta herri bazkaria egingo dira, baina bakotzak eroan behar izango dau janaria. Arrastian, *Sardina freskue* saioa eukiko dogu ikusgai. Holan bukatuko dira jaiak Larrabetzun. Datorren urtera arte, behintzat.



ANDRA MARIK

Abuztuak 12, eguaztena

-17:30: Futbol 7 Txapelketea (Kanporaketak, 12 urtera artekoak eta 12 urtetik gorakoak. Izena emotea: igerilekuan edo intxurretajabatzordea@gmail.com helbidean, abuztuaren 9a baino lehen.

Abuztuak 13, eguena

-17:00: Futbol 7 Txapelketea: finalaurrekoak eta finala.
-20:00: Herri afaria + Futbol 7 Txapelketearen sariak banatzea. Ekarri etxetik jateko erabilteko tresna berre-rabilgarriak.
-22:30: Kantuke: herriko musikariak eta kantu lehiaketea. Banaka, taldeka, zuzenean, play back... Euskeraz.

Abuztuak 14, barikua

-18:00: Triatloi herrikoia, bikoteka. Izena emotea: igerilekuan edo intxurretajabatzordea@gmail.com helbidean, abuztuaren 9a baino lehen.
-20:00: Txupinazoa, Hori Bai Gaztetxean. Herriko trikitilariakaz, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz eta Matxinegaz.
-22:30: Esku pelotea. Jaialdi profesionala.
-00:30: Erromeria, Drindots taldeagaz.

Abuztuak 15, zapatua

-08:00: Sokamuturra.
-11:30: Kalejirea, txistulariakaz, Akermarigaz, Paskualagaz eta Matxinegaz.



Jai-egitarauak



–12:00: Euskal dantzak, Bizkargi dantza alkartearen eskutik. Ostean, pintxoak das-tatzea, txosnetan.

–17:30: Gorriti eta bere animaliak.

–19:30: Karrozak.

–22:00: Kale antzerkia. *Ongi etorri finde-mundo!*, Trapu zaharrak taldearen eskutik. Ostean, erromeria, Garilak 26 taldeagaz.

Abuztuak 16, domeka

Pijama gaua

–11:00: Erraldoiak kaleetatik, Ondalan konpartsaren eskutik.

–11:30: Umeentzako puzgarriak, igerile-kuan.

–12:00: Argazki jaia, plazan. Fotokola.

–14:00: Umeentzako bazkaria.

–14:30: Sukalki Txapelketea.

–18:00: Herri-kirolak. Erronka: Mungia-Morga-Larrabetzu.

–20:00: Castellersak, Minyols de Terrassa taldeagaz. Ostean, Dantza lehiaketea.

–23:00: Erromeria, Tximeleta taldeagaz.

SAN BARTOLOME

Abuztuak 24, astelehena

–Goizean, igoera San Bartolomera.

–14:30: Paella Txapelketea.

–17:00: Briska Txapelketea.

–17:30: Urkaritxo Txapelketea.

EMETERIAK (GOIKOELEXALDE)

Abuztuak 30, domeka

–12:30: Kalejirea eta txupinazoa.

–14:00: Marmitako Txapelketea.

–17:00: Mus Txapelketea.

–19:00: Igoera Barrenetxera.

–21:30: Kontzertua: Luhartz.

Abuztuak 31, astelehena

–12:30: Kalejirea, Akermarigaz, Pas-kualagaz eta Matxinegaz.

–13:00: Bertsolariak: Arkaitz Estiballes eta Xabier Amuriza

–17:00: Briska Txapelketea.

–18:30: Idi-probak.

–19:30: Zikiri jana.

–20:00: Dantzak, Aiko taldeagaz.

Irailak 1, martitzena

Umeen Eguna

–11:00: Martxa, Goikoelexaldera. Plazatik.

–12:00: Jokoak. Ostean, bazkaria (Bakotxak ekarri behar dau bere janaria).

–Arrastian, *Sardina Freskue* ikuskizuna.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Baserrako ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84



**Pelukeria
Estetiko**

Servicio de Peluqueria y Estetica



tlf. **94 455 81 44**
Anguleri 2 bajo Larrabetzu - Bizkaia

herriena duna, herriek defendiduko dola

**Are
txa
bata
LIBRE!**

eta zabalik!



Andra Mari kalea, 8, Larrabetzu

Aurtengo jaiak, parte-hartzaileagoak

“Lezamako Mugetatik” mendi lasterketak motorrak berotu eta jai-giroan murgilduko dira lezamarak aste bizi biren zehar. San Antolin, Andra Mari, Bolalekuko jaiak, Santa Kurutze... Basobaltz jai-batzordeak aurtengo jaien kakoak azaldu deuskuz, eta bere beharraren barri be emon deusku.



a: Gaizka Peñafiel

Basobaltz Lezamako jai-batzordeak helburu hau hartu dau aurtun: Lezamako jaiak parte-hartzaileagoak izatea. Horretarako, ahalegina egin dabe herritarrak batzen dituen ekintzak antolatzen. “Besteak beste, egunean zehar egiten diran ekintzak indartu doguz, adin ezbardinetako lagunei zuzendutako ekintzak antolatu dira, barrikuntzak sartu... Herritar guztien interesak eta gustuak hartu doguz kontuan eta euren nahiak asetzen saiatu gara”.

Jai-egitaraua osatzeko orduan, aurreko urteetako eskema berari jarraitu deustoe. Halan, ondo funtzionetan daben ekintzak mantendu dabez: pelota partiduak, umeentzako puzgarriak, mezea, paella txapelketea, kontzertuak, euskal dantzak, Zorribike taldearen lasterketea, abesbatzearen emonaldia, antzerkia... “Baina barrikuntzak be egongo dira, esate baterako, barikuko moztorro jeitsiera, zapatuko bazkaria eta Arabako Lezama herrikoen aurka egingo diran herri-olinpiadak, bertsolariak Bolalekuko jaietan, elektrotzarangea...”

Jai-batzordeak ez dauka dudarik: ekintza erakargarrienak lezamarak batu dituenak dira, “herri bazkaria eta moztorro jaitsiera batik bat”. Era berean, gai nontzeko herrietako txorierritarrak eta kanpotarrak Lezamaraino hurbilduko dituenak be azpimarratu ditue, “kontzertuak eta “Lezamako Mugetatik” mendi las-

“Alkarlana oinarritzat hartuta, garrantzitsuena danontzako jaiak antolatzea da”

terketea eta martxea, adibidez”. Gainera, uste dabe, uda osoan jairik jai ibili ostean, Lezamakoak oso jai aproposak dirala udari amaiera emoteko. “Euskotren eta Bizkaibus zerbitzuak daukaguz hona etorteko, eta leku paregabekoa da lezamarrok zein inguruko herrietakoak jai-giroan batzeko”.

Jai-guneari jagokonez, betiko moduan atonduko da. “Udaletxearen atzean txosnak, karpea eta eszenatokia ipiniko dira. Bestalde, inguruan be tabernak dagoz, eta ekintzok herriguneko beste leku batzuetan be egingo dira”.

Alkarlana

Aurretik, jaiak antolatzen beste talde bat ibili bazan be, Basobaltz jai-batzordea 2006. urtean sortu zan ofizialki. Jai-batzordea 18 urtetik 24 urtera bitarteko 13 neska-mutilek osatzen dabe gaur egun. Behar egiteko modu ezin hobea daukie: aurreko urteetako emaitzak aztertu eta ekintza erakargarrienak mantendu, txarto urten diranak baztertu edo hobetu, ekintza barriak proposatu... “Hori guztia adostasun eta etengabeko autokritikearen

bidez egiten dogu. Hainbat herritarreri be egiten deusegu gure bileretan parte hartzeko gonbitea, guztion ekarpenak eta proposamenak entzuten doguz, zereginak danon artean banatzen doguz... Alkarlanean gabilz beti. Akatsetatik ikasi eta, herritarrengan pentsatuz, ahalik eta jai dibertigarrienak egitea dogu helburu”.

Hainbat aldagai hartzen ditue kontuan, aurretik aitatutako helburua lortzeko: adin-tarteak, herriko txokoak, euskara eta euskal kulturea, alkarlana eta dendak, aniztasuna, beste herri batzuetako proposamenak... “Egia esan, gatxa da herritar guztien gustuko ekintzak antolatzea; urte guztietako erronka nagusia da. Horregaitik, beti daukaguz batzordearen ateak zabalik. Besteen kritikak eta iradokizunak entzuteko prest gagoz, eta, halan, horreei ahalik eta urtenbiderik egokiena emon ahal izatea. Argi daukagu, alkarlana oinarritzat hartuta, garrantzitsuena danontzako jaiak antolatzea dala. Horren haritik, esan beharra dago herritar gehiagoren laguntzea behar dogula, ekarpen aberagarriagoak danon artean lortzen baitira”.

Zailtasunak zailtasun, gogotsu dabilz Basobaltz jai-batzordeko kideak beharrean, euren leloa ahaztu barik: jaiak herri eta herriarentzat. “Oso pozik gagoz aurtun osatu dogun egitarauagaz. Aberatsa, polita eta anitza da, gaur egungo testuinguru ekonomikoa kontuan hartuta. Herritar guztien nahiak asetzen saiatu gara eta badakigu gure beharrak bere frutua emongo dauala”.



Parte hartu
gure jaietan



Ayuntamiento de
Lezama ko Udala

jaiak euskaraz bizi!

lezama
consultorio veterinario
albaitaritza klinika
www.consultorioveterinariolezama.com
J.R. Galdona Madariaga
BI-515

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Parasitoak hil
Mikrotxipa
Kirurgia
EKG
Analisiak
Ospitalizazioa
Ekografiak

94 455 56 19 Aretxalde, 21bis • 48196 Lezama

LA
GUN
KOR

aretxalde, 68 - 48196 lezama
 t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

AHOLKULARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
 ZERBITZU BULEGOA

ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK

BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

HARRI-BILBO
HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
 ARKUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK
 HARRORIA: DURANDON
 E-mail: recupresaharribilbo@euskalnet.net

LANTEGIA:
 Kurtzea Industrialdea, z/g • 48196 LEZAMA
 ☎ 94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
 Itxaropena, 2 • 48100 MUNGIA
 ☎ 94 674 33 40

BOLALEKU
JATETXEA

Garaitzen, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jatetxea Facebook

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK

Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
 Aisialdirako landak • Apopilo zerbizuz
 Saito • Txangoak • Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
 Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA



Jai-egitarauak

Abuztuak 30, domeka

–08:30: “Lezamako Mugetatik” X. mendi martxea.

–10:00: “Lezamako Mugetatik” X lasterketea eta martxa txikia.

Irailak 2, eguaztena. San Antolin

–12:30: Mezea. Ostein, kopaua trikitilari girotua.

–14:00: Azken ordua bazkarirako txartelak erosteko (3 € aldeaz aurretik; 5 € eguaztenean bertan).

–14:30: Herri bazkaria (paella), Lezama Saretzen alkartearen laguntzeagaz.

–Ostein, briska txapelketea (izen emotea: 9 € hirukoteko) eta mus txapelketea (izena emotea: 20 € bikoteko). Sariak: bertako produktuak.

Irailak 4, barikua

–18:30: Koadrilen jaitsieria, Mikel Zarate enparantzatik. Eonian elektrotxararak girotua.

–20:00: Pregoia eta txupinazoa, Lezamako Gazte Asanbladaren eskutik.

–20:00: “Andra Mari” Pelota Txapelketearen finalerdiak.

–20:15: Poteoa herriko tabernetatik, Eonian elektrotxararak girotua.

–22:00: Txosnak zabaltzea.

–22:00–00:00: Mozorrotuta datozenentzat 2x1 katxietan (garagardoa eta kalimotxoa) eta alkohol bako edarietan. Umeentzat, gozokiak.

–23:30: Kontzertuak: Artxoak + Kartzarot + Ingo Al Deu.

LEZAMAKO JAIK

–01:00: Mozorro lehiaketearen sariak banatzea.

–Tabernetan-eta, odolosteak afaltzeko.

Irailak 5, zapatua

–11:00–13:00: Umeentzako puzgarriak, ohe elastikoak eta quad pistea.

–13:00: Kurutze dantza taldearen ekitaldia, Udaletxe atzean.

–14:30: Herri bazkaria, Estankoaren eskutik. Txartelak, dendetan eta tabernetan

salgai: 10 €. Eroste azken eguna: irailak 2.

–Bazkaldu ostein: Herri kirolak. Lezama (Araba) vs. Lezama (Bizkaia).

–16:30–18:30: Umeentzako puzgarriak, ohe elastikoak eta quad pistea.

–19:30: Kale-antzerkia: *Txatarra*, Malas Companias zirko taldearen eskutik.

–21:00: Kale-animazioa.

–22:00: Txosnak zabaltzea.

–23:30: Kontzertuak: Skakeitan + Vendetta + Oxabi.

–Tabernetan-eta, odolosteak afaltzeko.

KURTZEKO JAIK

Irailak 11, barikua

–19:45: Txupinazoa eta jaien hasieria.

–20:00: Idi probak. XXXI. Leihaketea, pisu libre kategorian.

–20:30: Kalejirea, ermitako landatik sagardaotegiraino.

–21:30: Bertso afaria, Lezama sagardaotegian: Malen Amenabar eta Paia anaiak.

–22:00: Erromeria, Alai taldeagaz.

Irailak 12, zapatua

–10:00: Mahaiak eta aulkiak banatzea (mahai bat + 6 aulki: 15 €). Txartelak erosteko azken eguna: irailak 9.

–11:00: Umeentzako tailerrak.

–11:30: Sukalki eta tortilla txapelketetan izena emotea.

–14:00–14:15: Sukalkia eta tortillak aurkeztea eta sariak banatzea.

–14:00: Umeentzako bazkaria. Txartelak, dendetan eta tabernetan salgai: 7 €.

Eroste azken eguna: irailak 9.

a: Bertsozale elkarte



Irailak 6, domeka

–09:30: “Andra Mari” VIII. BTT Lasterketea, Zorribike taldeak antolatua.

–12:30: Mezea. Ostein, Ekidazu eta Koro Samaniego Gasteizko abesbatzaren emonaldia.

–19:30: *De aquí y de allá* antzezlan, Kultur Aretoan. Ausartak antzerki taldearen eskutik.

Irailak 7, astelehena. Odoloste Eguna

–Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko.

Irailak 8, martitzena.

Andra Mari Eguna

–12:30: Mezea.

–18:00: Potxin eta Patxin pailazoak, Herriko plazan.

–18:30: Pelota Eskolako partiduak. Ostein “Andra Mari” Pelota Txapelketearen finalak.

Irailak 9, eguaztena

–12:30: Mezea.

Irailak 10, eguena. Bolalekuko jaiak

–13:00: Paella Txapelketan izena emotea.

–14:30: Paellak aurkeztea eta sariak banatzea.

–17:00: Umeentzako puzgarriak eta tailerrak.

–19:00: Txokolatada.

–19:30: Bertso saioa: Maialen Lujanbio eta Jon Maia. Gai-jartzailea: Malen Ame-nabar.

–14:30: Jubiladuen bazkaria.

–Arratsaldean: Umeentzako jolasak.

–18:00: Koadrilentzako herri kirolak.

–20:00: Afari-merienda: solomo eta hirugiharra-ogitartekoak.

–20:00: Herri kirolen lehiaketaren sariak banatzea.

–20:00: Musika norgehiagokea: Euskal Herria vs. Katalunia.

–21:00: Erromeria, Urrats taldeagaz.

–22:00: Sorginak erretzea, suak eta txokolatada.

Irailak 14, astelehena.

Santa Kurutze

–12:30: Mezea, ermitan.

–Kopaua, trikitilariak girotua.

Irailak 15, martitzena

–Mezea eta jaien amaiera.

RENOVE PLANA

Diru-laguntzak, leihok aldatzeko

Irailetik aurrera
Atzeraeraginezko izaera
Izapide guztiak, geure esku

! Aukar biki, diru-laguntzak mugatuak dira-eta



PERSIANAS Y VENTANAS GORDONIZ

ADITUAK, PERTSIANA ETA LEIHOETAN

Gordoniz 97, 48002 BILBAO ☎ 946 034 689 – 678 054 887
www.persianasgordoniz.com info@persianasgordoniz.com f Persianas Gordoniz



OXANGOITI

Kutur Elkartea – TABERNA

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

1.100.000



KIMA Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolaza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

48196 LEZAMA Bizkaia C/Arrieta 30



S.T. LEGU

RENTALIZANTIAK ETA BESO-LANDAKIA

F: 94 455 64 12 T: 94 455 61 98



Baserritarren Alkartea

Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

Pentsu naturalak



TABERNA GAZTEDEI

ODOLOSTEAK

Irailak 4, 5, 6, 11, 12 eta 13

Ondo pasa jaietan!

Aretxalde, 141
48196 Lezama
944 554 422
gazteditaberna@gmail.com

f

SOS: neska gazteak behar dira

t: Gaizka Eguzkitza / a: Derio EKE

DERIO EMAKUMEZKOEN KIROL ELKARTEA

"Laguntza eskatu nahi diogu Txorierri, kadete mailako taldea atera ahal izateko. Bailerako neskek eta gurasoek jakin behar dute hemen, etxean, Derion, talde bat dagoela, eta futbolean jokatzeko, ez dutela kanpora joan beharrik. Guk 2000. eta 2001. urteetan jaiotako neskak behar ditugu. Hemengo neska batzuek kanpota jokatzeko dute eta horrek amorrua ematen digu, gurea klub serioa delako. Gainera, Txorierriko neskak kanpora joaten badira futbolean jokatzera, klubaren etorkizuna kolokan egongo da". Juan Carlos Palacio presidentearen hitzak dira. Deriokoak kezkatuta daude, bai.

"Guk nahi duguna hau da: neskei nahi duten kirola egiteko aukera ematea, ondo pasatzea, eta gero, posible bada, irabaztea. Guk ez diegu jokalariei ezer kobratzen. Ziurrenik, kobratzen ez diegun talde bakarrenetariko bat izango gara. Guk ez dugu dirua irabazteko grinarik eta erakunde publikoen zein beste babesle pribatu batzuen laguntzarekin ordaintzen dugu denboraldia", azaldu du Julen Ibarluzea taldeko koordinatzaileak.

"Gizonezkoen mailan, Txorierriko selekzioa sortu da, eta, agian, antzeko zer-bait egin beharko da emakumezkoen mailan ere bai. Derioko Udalak izugarriko laguntza eskaintzen digu, eta gainontzeko Udalei edo Mankomunitateari ez

Txorierriko nesken futbol talde bakarra Derion dugu. Iaz Bizkaiko Kopa irabazi zuen, baina aurten arazoak dituzte kadete mailako taldea aurrera ateratzeko, futbolariarik ez dagoelako. Horregatik, sorospen-deia zabaltzea nahi dute bailaran zehar. Neska gazteak behar dituzte.

"Ziurrenik jokalariei kobratzen ez diegun talde bakarrenetariko bat izango gara"

"Nesken falta dago herri guztietan, eta azken urteotan klub batzuk desagertu egin dira"

diegu babes ekonomikorik eskatzen, atxikimendua baizik. Izan ere, gure taldean Txorierriko herri guztietako neskek jokatzen dute. Eta haiek helburu bakarra dute, ondo pasatzea eta inolako presiorik gabe jokatzea", dio Juan Carlosek.

Arazo nagusia neska futbolariarik eza da. Arteaga da harrobia, eta horrek futbolariak hornitzen ditu bai emakumezkoen taldea, bai gizonezkoa. Arteagan 180 ume inguru daude, eta bakarrik haietako 20 dira neskak. "Futbolari gutxi daude herri eta talde guztietan. Horri aurre egiteko, beste klub batzuetan zenbait amak

eman dute izena taldean jokatzeko, eta taldea aurrera atera ahal izateko, baina guk ez dugu puntu horretaraino heldu nahi".

Beste arazo handi bat Bizkaiko Futbol Federazioak sortu du, Deriokoan iritziz. Izan ere, 2013an mailak egokitu zituen: lehen, nesken mailan, kadeteek (13-15 urte) eta gazteek (16-18 urte) elkarrekin jokatzeak aukera zuten; orain, aldiz, nesken eta mutilen mailak parekatu egin dituzte, eta kadeteek eta gazteek ezin dute elkarrekin jokatu. "Aldaketa horrek eragozpen piloa ekarri digu taldeoi eta klub bat



2014-2015eko gazte taldea



2014-2015eko talde nagusia

baino gehiago desagertu egin da –Gallarta, lurreta, Galdakao...–, neskari ez dagoelako. Federazioak egin duen aldaketak ez dauka zentzurik, kasu honetan neskak eta mutilak parekatu ezin direlako. Izan ere, askoz mutil gehiagok jokatzen dute futboleak, neskak baino. Horregatik, Federazioak zailtasunak baino, erraztasunak eman beharko lizkigu emakumezkoen taldeoi”.

Sorrera

Emakumezkoen futbol federatua Derio Kirol Elkartearen eta Arteagaren eskutik jarri zen martxan herrian. Biek hitzarmen bat sinatu zuten 2009an, herriko, eta oro har, Txorierriko neskek federatuta jokatu ahal izateko. Hala ere, 2013an, Bizkaiko Futbol Federazioak mailen legedia aldatu zuenean, alegia, neskari gabe gelditu ziren eta Arteagak taldea utzi zuen. Beraz, guraso talde batek hartu behar izan zuen lekukoa eta aurrera atera zuen taldea. “Pena handia zen neskak bakarrik

uztea, eta horregatik erabaki genuen taldea guk geuk antolatzea”, esan digu Juan Carlosek, talde horretako guraso ere badenak. Presidentearekin batera beste bost batzarkidek, Julen Ibarluzea koordinatzaileak eta bost entrenatzailek gogor egiten dute lan, nesken taldeak aurrera eramateko. “Batzarkide bakoitzak ere bere pentsamendua du eta hori oso aberasgarria da. Nik uste dut horri esker atera dugula kluba aurrera”.

Nesken klubak ez du zerikusirik mutilen klubarekin, eta nork bere dirua lortu eta kudeatzen du. Hala ere, batzarrak egiten dituzte zelaiaaren ordutegiak antolatzeko. Guztira, talde bik osatzen dute Derio Emakumezkoen Kirol Elkartea: Lurralde Mailakoa, nagusia, eta bigarren taldea. Aurreko urteetan azken hori kadete-gazte mailan ibili da, baina datorren urtean kadete mailan jokatuko du. “Gure ustez oso garrantzitsua da talde biak ateratzea, talde gazteagoak nagusiaren etorkizuna bermatzen duelako. Talde nagusia

osatzeke ez dugu arazorik izango, baina kadete mailakoan jokalarik gutxi ditugu”, esan du presidenteak. Talde biek astean birritan entrenatzen dute.

Batzar berriak urte bi daramatza klubean eta emaitzei erreparatu gero, lan bikaina egin dute, iaz talde nagusiak Bizkaiko Kopa irabazi zuelako. “Gainera Gasteiz Cup txapelketan bigarren postuan gelditu ginen. Denboraldiaren lehenengo zatian kaskar ibili ginen eta jokalarik garrantzitsu batzuek ez zuten jokatu, min hartuta ibili zirelako, baina bigarren zatian hobeto egin genuen eta Kopa irabazi genuen. Aurten aurrerapausoa eman nahi dugu eta Euskal Ligara igo nahi dugu. Batzuek esaten dute zorrotza gaudela baina guk uste dugu aukera dugula. Talde polita dugu eta neskek inplikazio eta ilusio handia dute”, esan du Julenek.

Izena emateko:

608 68 58 08

julenibarluzea@hotmail.com

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindri Benhur
Logopedia
Podologia
Kirmasajen

clínica dental
ZAINDUZ
hartz klinika

Txoriem etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezaindri.com | www.dentalezaindri.com

HAUR-MODA
TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

aek 30 urtean, 50.000 lagunek ikasi dute euskara gure 100 euskaltegietan
euskara praktikoa

Eman izena

Txorierriko AEK
Hurbiltasuna.
Herrian bertan klaseak hartzeko aukera.
Informa zaitez.
MATRIKULA ZABALIK IRAILAREN 29 arte

Txepetxa euskaltegia
Gorbea 5 behe, 48160 Derio (Bizkaia)
944 543 967 / 607 598 794 txepetxa@aek.eus

Oihala altxatu da



t/a: Itxaso Marina

Antzerki Eskolaren arduradunek balorazio positiboa egin dute bere lehenengo urratsei buruz. Zortzi lagun ibili dira bertan, eta guztiak azaldu dira pozik esperientziarekin. Errepikatzeko gogoarekin. Maite Rosón eta Nerea Miranda larrabetzuarak, eta Arrate Olazar lezamarra egon dira haien artean. "Aukera sortu zen eta ia pentsatu barik eman nuen izena", kontatu digu Maitek. "Barruan dudak energia sortzailea garatu behar nuen". Arrate eta Nerearentzat, berriz, ez da lehenengo aldia izan antzerki munduan, aurretik ere hartu zutelako parte antzezlanen batean eskolan. Esperientzia dibertigarria izango zelakoan, aspaldian antzerkiarekin izan zuten harremanari berriro ekitea erabaki zuten.

Josu Camara aktore eta Kukubiltxo taldearen zuzendaria izan dute irakasle, eta, azaldu digutenez, asko ikasi dute. Landu dituzte hitzik gabeko hizkuntza, gorputzaren jarrerak, ahotsa, bokalizazioa... eta ikasi dute kideekin kolaboratzea oso garrantzitsua dela. Ariketa bidez egin dute hori guztia. "Hala ere, oraindik ez dugu lortu geure emozioak ikusleen

Amaitu berri den ikasturte honetan, martxan jarri da Txorierriko Antzerki Eskola. Txorierriko euskara elkartearen eta Mankomunitatearen egitasmo bat da, besteak beste, helburutzat dituen euskaraz ondo pasatzea, adieraztea, sortzea eta lagun berriak egitea. Urrian altxatuko du oihala berriro.

aurrean adierazten, baina ziur nago lortuko dugula datorren ikasturtean", esan du Maitek. "Nik eszenatokiaren gainean zurraro sentitzen ikasi dut", gaineratu du Nereak. "Baita ondo pasatzen ere. Izan ere, Josuk esaten digunez, guk ondo pasatzen badugu eszenatokian, jendeak ere ondo pasatuko du gurekin".

Oso esperientzia positiboa eta polita izan da hirurentzat. Nahiz eta noizbehinka une txarren bat pasatu duten, ariketa

"Irakasleak esaten digunez, ondo pasatzen badugu eszenatokian, jendeak ere ondo pasatuko du gurekin"

edo eszena ondo atera arte errepikatu behar izan dutelako. "Egia esateko, nik lotsa pasatzen nuen hasieran", aitortu du Arratek. "Eta orain ere bai, batzuetan, ez pentsa! Eta ez nuen oso ondo ulertzen zergatik egiten genuen ariketa bat edo bestea, mugimenduak landu... Gero, noski, esketxak edo lan txikiak egiten dituzu eta logika topatzen duzu".

Momentu barregarriak

Era berean, oso esperientzia baliagarria izan dela ziurtatu digute. Barre egiteko, lotsa galtzeko, norberaren espresioa hobetu eta gaitasunak garatzeko, beste ikasleekin konpartitzeko... Eta euskara praktikatzeko, eskola euskara hutsean

ematen delako. Horren haritik, Arrate bel-
dur apur batekin ibili zen lehenengo
eskoletan. "Euskaltegian nabil gaur egun,
baina eskolan-eta gaztelaraz ikasi dut eta
pentsatzen nuen zaila izango zela ba-
rruan dudana euskaraz ateratzea. Hala
ere, oso ondo joan da". Maite ere pozik
dago, hizkuntza aldetik oso ahalegin han-
dia egin behar izan duen arren. Ne-
rearentzat, berriz, errazago izan da, ha-
rreman estuagoa duelako euskararekin.
"Dena dela, antzerki eskola akuilua izan
da eta EGA ateratzera animatu naiz". Be-
rak eta Maitek barnetegi batean eman
dute izena uda honetan.

Nereak oraindik ez daki, "beste alder-
di batzuk hartu behar ditudalako kon-
tuan", baina Maitek eta Arratek argi dute
datorren ikasturtean jarraituko dutela
antzerki eskolan. "Emakumezkoak gara
guztiok, eta ondo legoke gizonen batek
ere izena ematea, beste ikuspuntu ezber-
din bat edukitzeko". Hamasei urtetik 57
urte arteko antzerkizaleak dira eta, aipatu
digutenez, oso aberasgarritzat jotzen
dute taldean hainbat adin-tartetako jen-
dea egotea. Hurrengo ikasturteari begira,

Izena emateko epea, zabalik

–txorierri.antzerkia@gmail.com

helbide elektronikora idatzi

–Zure herriko **euskara elkarte**an
galdetu

–**Prezioa:** 10 €, hilean

–Eskola **asteazkenetan** emango da,
19:00etatik 21:00etara, **Derioko Kul-
tur Birikan**.

–Ikasturteari **urriaren 7an** emango
diote hasiera.

–Antzerki eskola **euskalduna** da eta
16 urtetik gorako lagunei dago
zuzenduta. Ez dago bertan parte
hartzeko adin-mugarik.

Antzerki Eskolan izena emateko epea
zabaldu da, eta hirurek txorierriar guztiok
gonbidatu gaituzte bertan parte hartzera.
"Oso momentu barregarriak egoten dira
eta primeran pasatzen dugu. Asko ikasten
da eta euskara praktikatzeko dugu. Gain-

*Oso esperientzia
baliagarria izan da:
barre egiteko, lotsa
galtzeko, norberaren
gaitasunak garatzeko...*

*"Emakumezkoak gara
guztiok, eta ondo legoke
gizonen batek ere izena
ematea, beste ikuspuntu
ezberdin bat edukitzeko"*

era, oso jatorrak gara guztiok, eta giro
ezin hobea dago gure artean". Aurreratu
digutenez, antzezlan bat aurkeztuko dute
laster jendaurrean. Beren lana ikustera
joan beharko dugu; edo geu saiatu esze-
natoki gainean. Zergatik ez?

ZAMUDIOKO KAMARA KORALA www.zamudiokokamarakorala.eu

ZAMUDIOKO KAMARA KORALAK denboraldia hasiko du,
eta 8 urtetik gorako ume eta gaztez
osatutako GAZTEEN ABESBATZA berriari ere
ongi etorria emango dio



Zatoz gurekin !!



☎ 657 775 911
✉ idazkaritza@zamudiokokamarakorala.eu

Zaborra burutik gora (eta noraino!)

t: Xabier Díaz, BTEK-eko zuzendaria

Egunotan New Horizon espazio-ontzia hizpide dugu hedabideetan. Pioneer, Voyager eta beste zunda batzuen bideari jarraituz, Pluton aldera jo du, eta hasi da haren eta beren ilargien inguruko informazioa Lurrera bidaltzen. Paparazzi lanak egin eta gero, New Horizon-ek Eguzki-sistemaren muga den Kuiper Gerrikoko gorputzen argazkiak atera eta alde egingo du, bere kideek egin zuten bezala.

Alde egin, jausi... Eta bestek?

Zunda hauen kasua berezia da, dena den. Gutxi dira gure eguzkiaren eragine-rik ihes egiten dutenak. Batzuetan, haien misioa bete eta aztertzeraz joan diren gorputzera jautsen dira, prozesuan desintegratuz. Lurrera, adibidez, satelite batzuk edo horiek orbitara eramateko erabiltzen diren espazio-ontzien zati batzuk jausten dira. Beste batzuk, ordea, orbitan gelditzen dira, biraka, inoiz euren artean talka eginez, beste satelite batzuen bidea oztopatuz, eta espazio-ontziak eta astronautak arriskuan jarrit.

Zabor espaziala

NASA eta ESA-ren kalkuluen arabera, 20.000 baino gehiago dira Lurraren inguruan biraka dabiltzan 10 cm baino gehiagoko zabor-pusketak. Eta 500.000tik gora 1 cm-10 cm bitartekoak dira. Baina horien kopurua ez da arazo bakarra, abiadura itzela ere baitute: segundoko 15 kilometrora irits daitezke! Kontuan hartu, hegazkinik azkarrena ez

delako segundoko kilometro bateko abiadurara iristen.

Zabor-pusketen jatorria espazio-ontzietatik askatzen diren atalak izan dira gehienbat, baina azken urteetan sateliteen artean izan diren talkak direla-eta, gaur egun horien pusketek osatzen dute batez ere. Gainera, orbitan dauden 3.600 inguruko sateliteetatik 1.000 inguru baino ez daude erabilgarri.

Eta orain, zer?

Arazoa berria ez den arren, espazio agentzia ezberdinetan oraintsu hasi dira zaborra kontrolatzen. Eta zabor-kopurua gora badoa ere, espero da hartutako neurriek epe laburrean eragina izatea. Bestalde, espazio-ontziak, sateliteak eta horrelakoak material bereziko geruzez babesten dira, baina arazoa ez da bakarrik neurri pasibo horiekin konponduko.


Neurri aktiboen artean, laser eta kanoi magnetikoez egiten da berba. Ideia, zabo-

rra lurrerantz desbideratzea da, atmosferarekin topo egitean desintegratuko zelakoan. Honek baditu bere arazoak: oso sentore sentikorrek behar dira, pusketak eta haien inguruan dagoena lokalizatu eta beren ibilbidea ezagutzeko. Eta oso punteria zorrotza, desbideratu ostean, beste gorputz batekin talka egin barik lurrerantz bideratzeko.

Beste ikuspegi batzuetatik ere bada biltza lanean. Suitzako EPFL-n, esate baterako, Pacman satelitea (10) garatu dute, oso sentore bereziak edukiko dituen, eta zaborra arrantzatuko duen sare metalikoak erabiliko dituen.

Aburacurcix-en kezka bakarra...

Halakoren batean zerua gainera etortzea omen zen... Eta ez, Asterix eta Obelixen herrixkako buruzagiak zioen moduan, hori ez da bihar gertatuko... Gutxi dira atmosferan desintegratu barik sartzeko gai diren zabor-pusketak, eta oso kontrolatuta daude. Arazoa orbitan dauden traste eta espazio-ontzietarako da. Beraz, astronauta izateko asmorik ez baduzu, lasai ibili!



Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

TXORIERRI Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net


enregandik gerta

ABOLKULARTZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKATATZEAK
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAGREN AGENTZIA

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefonoa: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

Bernardo Atxaga, Uzkudun eta Oihartzabal



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Paulino Uzkudun boxeolari unibertsala gogoan duela, Bernaro Atxagak testu literario antologikoa idatzi du *Nevada-ko Egunak* eleberrian. Luma leunez jasotzen du pisu astuneko Uzkudun letra ederraren kuadrilaterora. "Ez da inor oso-osorik gelditzen oroimenean. Gizaki batzuek enblema bikoitza uzten dute atzean. Halakoxea utzi zuen Paulino Uzkudunek, behin batez Euskal Herriko eta Espainiako gizonik miretsiena izandakoak" – dio Bernardok.

Bestalde, Oihartzabal zesta-puntako pilotaria Filipinetan bizi da –isla bat dauka berea, Hong Kong-etik Miami-rako merkataritzari esker lortua–. Beronen aitona, donostiarra, Uzkudunen managera izan zen. Aita, berriz, buzoa, urpekaria zena, morrosko itzela. Behin, elkarte gas-

tronomikoetariko batean, apustua egin zuen Oihartzabalen aita honek: baietz jan berak eta beste batek –biren artean– hiru kilo txuleta eta hamar kilo patata.

Egin ziren, bada, apustuak notario eta guzti. Heldu da eguna, eta Oihartzabalen aita aurkeztu da hamar arroako txerria sokatik dakarrela. Irabazi egin zuen postura, ezen berak jokatu baitzuen esanaz: "Yo y otro".

Oihartzabalok bi ziren, berez, bata aipatu dugun Filipinetakoa, eta bestea "Ketxus" deritzana, Makaoko Jai-Alain jokatu zuena. Azken honek, neurriira jositako alkandorak ekartzen zizkion aitari Txinatik. Hain handia izanik, baina, txinok lehertu egiten ziren barreka tamainarekin. Arrazoia? Bada, sei edo zazpi txino txikik sartu behar izaten zutela setazko alkandora barruan neurriira josi ahal izateko.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

RUBEN

ERLOJU-DENDA, BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 49

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

elekma

URRATZETIKEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXOAK

lehenengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tecnicari erabadea: 25-31 N • 48180 Ibaia
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Laurola etorbidea, 27
48180 Lodu-Bizkaia
T-Faxia: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

Etxeko sukaldaritza

Hegaluze-mendrezkea laban errea

*t: Maite Lekerika***Osagaiak (4 lagunentzat):**

- Kilo bateko hegaluze-mendrezka bat
- Porru eder bat
- Azenari bat
- Kalabazin bat (azalagaz)
- Berakatz-atal bi
- Oliba-orio zurrusta bat
- Gatza

Prestetako errea:

Barazkiak garbitu eta juliana erara ebagiko doguz. Orio apur batean arin erregosiko doguz eta, erdi eginda dagozanean, gatz apur bat botako deutsegu. Gordeko doguz. Labea 200 gradutan berotuko dogu. Mendrezkea azpil baten ipini eta orioz eta gatz apur batez igurtziko dogu. Hamabost minutu pasau ostean, barazkiez estaliko dogu mendrezkea. Aluminio-paperaz be estali eta labara sartuko dogu 10 minutu. Handik atera eta serbiduko dogu.



Hiru txokolatezko tartea

Osagaiak (sei lagunentzat):

- 200 g gaileta
- 100 g gurin
- Esne-zurrusta bat
- 200 g txokolate zuri
- 200 g txokolate esnedun
- 200 g txokolate baltz
- 600 ml esnegain
- 600 ml esne
- 3 sobre mamin

Prestetako errea:

Gailetak txikitu eta katilu baten ipiniko doguz. Gurina urtuko dogu eta gailetak dagozan katilura botako dogu. Ore bat egingo dogu, eta beharrezkoa bada, esne-zurrusta bat erabili daiegu, ore hobeto lotzeko. Orea tartak egiteko molde baten zabalduko dogu eta labara sartuko dogu, 5 minutu eta 180 gradutan. Orea labatik atera eta txokolateak egiteari ekingo deusagu.

Txokolate baltzagaz hasiko gara. Ontzi baten 200 g esnegain eta 200 g esne berotuko dogu. Irakitzeko dagoanean, txokolate baltza gehituko dogu, zatika. Eragingo dogu eta urtzen danean, mamina botako dogu. Eragiten jarraituko dogu, zazpi minutu inguru. Loditzen hasten danean, orearen gainean bota eta hozkailura sartuko dogu, hozteko eta gainean beste txokolateak, horreek nahastu barik, bota ahal izateko. Gauza bera egingo dogu txokolate esnedun eta txokolate zuriagaz. Amaitzen doguanean, tartea 12-24 ordu sartuko dogu hozkailura.



Consulting Sondaika s.l.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentzia
Allianz
609 473 746

Mitxelena, 6 beheko
48150 Sondaika-Bizkaia

Tel: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartarri etorbidea, 9-4
48103 Leioa

Teléfono eta faxa
94 454 44 50
a.amondarain@euzkaid.net

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurrezaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldizkariak, liburuak,
papergintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)




Zer irakurri?

Greg gizajo baten egunkaria

Garbiñe Larrauri (Lituraturia)

Idazlea: Jeff Kinney
Itzulpena: Miren Arratibel
Argitaletxea: Alberdania
Orrialde kopurua: 217
Edizio urtea: 2011
Adina: 10 urtetik 12 urtera

Liburu dibertigarria irakurri nahi baduzu, Greg Heffleyren egunerokoarekin has zintezke. Liburu honen egilea Jeff Kinney da, eta hasiera batean, berak ez zuen pentsatu egindako istorio bildumatik eta marrazkietatik liburu bat aterako zenik; baina, oso arrakastatsuak izan ziren eta azkenean liburua argitaratu zuen. *Greg gizajo baten egunkaria* izan zen lehen liburua, 2006. urtean argitaratu zen bilduma luze baten hasiera. Liburua oso dibertigarria da eta arin irakurtzen




da, gainera Jeff Kinney marrazkilaria da ogibidez eta liburuan agertzen diren marrazkiak oso onak dira.

Protagonista nagusia Greg Heffley da eta institutuko ikaslea da, bigarren mailakoa. Gregek familia "arrunta" du eta hiru anaietan erdikoa da. Amak aholkatzen dio egunerokoa idaztea, handitan ospetsu egiten denean, ez dadin ibili jendeari bere bizitza azaltzen behin eta berririo. Hasieran, ideari ez deritzo ondo, baina egunak aurrera joan ahala zaletu egiten da, eta egun guztietan gertatzen zaiona eta sentitzen duena idazten du. Umorez kontatzen du zelango bizimodua daroan institutuan eta etxean, eta barre besterik ezin duzu egin dauzkan ateraldiekin.

Greg-en liburuak gustatuz gero, baduzue aukera pelikula ikusteko eta Interneten bere orrian sartzeko eta jolasteko.

Irakur ezazue eta konturatuko zarete zergatik egin zen hain famatu Greg eta zergatik gustatzen zaion hainbeste mundu osoko gazte jendeari.



Erakusketak

Derio

- > "Janzkerak Bizkaiko dantzetan", Bizkaiko Dantzarien Biltzarren eskutik.
- > Irailaren 7tik urriaren 3ra, Kultur Birikan. Lainomendi dantza taldeak antolatua.

Hitzaldiak

Derio

- > "Garuna proiektua". Irailaren 8an, 11:00etan, Kultur Birikan. Mankomunitateak antolatua.

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Koldo Izagirrerren *Lorea Gernika*. Andrazko bat. Irailaren 17an, 19:00etan, Anguleri Kultur Etxean. Arrekikili euskara elkarteak eta Udalak antolatua.

Ikastaroak

Derio

- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 7tik 11ra, Kultur Birikan.

Zamudio

- > Udal ikastaroak: pilates, sukaldaritza, yoga, patinajea... Izena ematea: irailaren 25era arte.

Lezama

- > Udal ikastaroak: gorputz heziketa, flamenkoa, antzerkia, zumba, yoga, sukaldaritza... Izena ematea: irailaren 14tik 25era, liburutegian.

Larrabetzu

- > Mindfulness tailerra aurkeztea. Irailaren 18an, 18:00etan, Anguleri Kultur Etxean.
- > Estresari aurre egitea. Irailaren 21ean eta 22an. Informazio gehiago, Anguleri Kultur Etxean.
- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 25era arte. Informazio gehiago: Angulerin eta frontoian.

Ikuskizunak

Zamudio

- > Kale zinema. Abuztuaren 6an, 13an eta 20an, 22:00etan. Inisitue Gazte Asanbladak antolatua.

Irteerak

Txorierri

- > Kilometroak. Urriaren 4an, Usurbilen. Izena ematea: irailaren 14tik 30era. Informazio gehiago: Udaletxeetan eta Mankomunitatean.

Zamudio

- > Paintball. Abuztuaren 8an. Inisitue Gazte Asanbladak antolatuta.
- > Anboto (irailak 20) eta Torrecerredo-Europako mendiak (irailak 25-27). Arroeta mendi taldeak antolatua. Informazio gehiago: arroeta@gmail.com.

Lezama

- > Andorra (7 etapa). Uztailaren 31n, 08:30ean, Herriko plazan. Gailur mendi taldeak antolatua. Informazio gehiago: gailurmt@outlook.com.

Kirola

Zamudio

- > Arku jaurtiketa. Irailaren 6an, Errege Bidean.

Musika

Larrabetzu

- > Aguxtin Alkhat. Irailaren 27an, Hori Bai gaztetxean.

Bestelakoak

Derio

- > Tokiko agenda 21. Irailaren 23an, 19:30ean, Kultur Birikan. DerioKOMunikaziak antolatua.
- > Lore eskaintza: Derio duela 326 sartu zen Bizkaiko Batzar Nagusietan. Irailaren 24an, 12:30ean, Uribe Parkean.

Zamudio

- > Gidatze segurua ezagutzeko jarduerak eta umeentzako jolasak, Zamudio RACING taldearen eskutik. Irailaren 12an.
- > San Martin jaiak antolatzekeo batzarra. Irailaren 17an, 19:30ean, Eguraldi Ona jai-batzordearen lokalean.

Lezama

- > Liburutegia eta Ludoteka zabaltzea. Irailaren 7an; Gaztegunea eta Gaztelekua, irailaren 11n.

Larrabetzu

- > Eskolaz kanpoko ekintzetan izena ematea. Irailaren 18ra arte, eskolan.
- > Liburutegia zabaltzea. Irailaren 7an.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behe Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

MARMOLGINTZA
GOYO

SURALDE-GAINEKOAK OIRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA
IAZI
JATETXEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HARAGITEGIA
URDAGITEGIA
IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA, 2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko
etortzeagaitik

IB

Golkalea, 2
(samerreko kaleak)
Derio 48160

Marimar
94 454 13 64
670 022 794
marimarggg@yahoo.es

SUSTAPENAK
ETA
BERBERAPENAK

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata

Larraberrí, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 69
osteopatiolasai@gmail.com

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste bat _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

Orri hau helbide honetara bidali:

AIKOR! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).



BERTOKO

MUSIKA TRESNAK ETA KULTURA



2015/2016 IKASTURTERAKO ESKAINTZARIK ONENAK

ALBOKA - TXALAPARTA - PANDERO ETA PALUAK
EUSKAL KANTAK - TRIKITIXA - DULTZAINA

Matrikulazioa BERTOKOren lokalean:

irailak 2, arratsaldeko 18:00etan: **Pandero, Dultzaina.**

irailak 3, arratsaldeko 18:00etan: **Trikitixa, Alboka, Euskal Kantak, Txalaparta.**

Klaseen hasiera: irailak 7.

ERDU ETA APUNTA ZAITEZ!



615 749 570
bertokozamudio@hotmail.com
www.aikor.com/txokoa/bertoko

laguntzailea:

